

ttipi-ttapa

SARAKO OLHAIN IKASTOLA: 40 URTE EUSKARA ERAKUSTEN

40. urteurrenaren karietara, igande honetan egingen duten ikastolaren besta berezia izanen da. Egun osoko egitaraua prestatu dute. / 10



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerreka Eguna Sunbillan

Maiatzaren 26an Sunbillan ospatuko dute aurtengo Malerreka Eguna. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun osorako / 18

SINADURAK



ZURIÑE
ZUBILLAGA / 3

AITOR
AROTZENA / 3

SAIOA
IRAOLA / 4



ZURI NEGRIN

**Orain arteko
ibilbideaz eta bere
azken liburuaz
Hasier Larretxea / 8**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Arantzako Mendi
Itzulia eta Iruritako
Mendi Duatloia ate
joka / 16-43**



UTZITAKO ARGAZKIA

**Eskualdeko 761
herriarrek parte
hartu dute herri-
galdeketa / 32**



ZOKKETA / 52



donbosco
Lanbide Heziketa

IKASKETA ESKAINTZA ETA ZERBITZUAK
Metodologia ETHAZI (Etekin handikoa) | Lan praktika atzerrian. ERASMUS Lan sartzak. LEHEN AUKERA | LH DUALA Txandakako Erregimenean ESKAINTZA PARTIALA. Hotz-Beroan eta Elektronikan | Heziketa Zikloak ELEANITZA modalitatean



CIFP DON BOSCO LH II
S. Marcos Errep. z/g Apdo. 101 - 20100 ERRETERIA
T. 943 51 04 50 - F. 943 52 92 20
donbosco@fpdonbosco.com
www.fpdonbosco.com



ikasLAN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

ATE IREKIKO JARDUNALDIAK:

maiatzak 17 eta 19

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

FAMILIA: AUTOMOZIOA

- Ibilgailu automobilen elektromekanika. LOE zikloa (A eta D)
- Karrozeria. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Soldadura eta galdaragintza. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA

- Telekomunikazioen instalazioak. LOE zikloa (A, B eta D)

FAMILIA: INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Bero ekoizpenen instalakuntzak. LOE (A eta D)
- Klimatizazio eta hotz instalakuntzak. LOE (A eta D)

FAMILIA: KIMIKA

- Kimikagintza. LOE zikloa (A, B eta D). TOLOSako egoitzan

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA

FAMILIA: AUTOMOZIOA

- Automozioa. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Metal eraikuntzak. LOE zikloa (A, B eta D)

FAMILIA: INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua. LOE (A, B eta D)
- Mekatronika industriala. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA

- Elektronika mantentze-lanak. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: KIMIKA

- Farmazia produktuen, bioteknologikoen eta antzekoen fabrikazioa. (LOE, A eta D)
- Analisis eta kalitate kontroleko laborategia. LOE zikloa (A eta D)
- Kimika inustriala. LOE zikloa (A, B eta D). TOLOSako egoitzan

LANERAKO HEZIKETA

- Lanbide Kualifikazioen Katalogo-ikastaroak
- Eskaintza-ikastaroak
- Eskaera-menpeko ikastaroak
- Lanerako heziketa ikastaroak
- Heziketa-beharren diagnosia (HBDak)
- Lanbide heziketa DUAL ALTERNANTZIAN
- Lehen Aukera



PLAIAUNDI
INSTITUTUA

📍 Plaiaundi z/g IRUN (GIPUZKOA)
🕒 9-14h y 16-18h ☎ 943 61 75 47
✉ info@plaiaundi.eus
www.plaiaundi.hezkuntza.net



ETENGABEKO FORMAKUNTZA
FORMAKUNTZA DUALA

BATXILERGOAK

- Zientziak
- Giza eta Gizarte-Zientziak

LANBIDE HEZIKETA

Erdi Mailako HZ

- Mendekotasun Egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Administrazio Kudeaketa
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak

Batxilergoa

Matrikula EPEA: **Ekainaren 20tik uztailaren 6ra**

LANBIDE HEZIKETA

Goi Mailako HZ

- Gizarteratzea
- Haur Hezkuntza
- Administrazio eta Finantzak
- Dietetika
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Garraioa eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK: **Maiatzak 30**

- Erdi mailako zikloak: 18:00
- Goi Mailako zikloak: 18:30

AURREMatrikula: **Ekainaren 4tik 15era**
Matrikula EPEA: **Uztailaren 12tik 18ra**



NIRE TXANDA

ZURIÑE ZUBILLAGA

Koherente ni?

Koherentea izatea garrantzitsua omen da. Tamalgarria bezain etsigarria. Energia kontsumo etengabea, ondoriorik gabeko kontsumo doakoa. Ez al da hankazgora ibiltzearen parekoa? Nola izan koherente nor garen jakin ezean? Nor naiz ni? Nor zara zu? Beharbada ideologiak definitzen zaitu, edo sarritan ikusten duzun taldetxo-pertsona horrek. Gure izatea opakua da, laino baten atzean bizi da ezkutaturik. Lainoa uxatu ezean ezin dugu atzean dagoen horri buruzko zantzurik izan. Ate lodi bat da, ate pisutsu bat, eta giltza behar da ate hori irekitzeko. Galderaren giltza, hausnarketaren giltza, zalantzen giltza. Ausardiaz, baina umiltasunez ireki behar da atea atzean dagoen horri aurpegira begiratu ahal izateko. Epai sozial horiei guztiei aurre egiteko, besteek nahi duten modura ez bizitzeko. Eta orduan, agian, hasiko gara koherentzia ulertzen. Galdutako borroka hori ez borrokatzen, gutxiago sufritzen.

**«GURE IZATEA
OPAKUA DA, LAINO
BATEN ATZEAN BIZI
DA EZKUTATURIK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

Autodefentsa ala ez erasotzea

Defentsarik onena atakea dela diote kirol adituek. Eskualdean han eta hemen sortu dituzte emakumeek autodefentsa ikastaroak, autobabes tailerrak... Ikusitakoak ikusita nahitaezkoa dirudi horrelakoetan ere saiatzeari, baina ez al litzateke egokiagoa, zuzenagoa eta seguruagoa izan gizonetako eraso-arma bezala ez hezitzea?

NABARMENTZEKOAK



**MIRENTXU
OIARTZABAL**
MEDIKUA



**ASUN
ELIZALDE**
100 URTE

Endokrinologia pediatrikoaren arloan egindako lana baloratuz eta Nafarroaren ospea zabaltzen laguntzeagatik, Nafarroako Gobernuak Karlos III.aren Gurutzea eman dio elizondoarrari.

Etxalarko Barbereneko Maria Asuncion Elizalde Danborienak ehun urte bete zituen joan den maiatzaren 2an. Mendea beteta ere, sasoi ederrean dago Asun. Aunitz urtez eta segi dezazula horrela!

ATZERA BEGIRA



2008-05-29 · TTIPI-TTAPA · 471 zk.

Joseba Larralde Nafarroako txapeldun

Azken aldian mendi lasterketetan badabil ere, gurpil gainean egindako lanagatik egin zen ezagun Joseba Larralde beratarrar. Duela hamar urte, Bidelan-Kirolgi taldean ari zela, 23 urtez beheitikoan Nafarroako txapela jantzi zuen eta elite mailan bigarren gelditu zen. TTIPI-TTAPARI kontatu zionez, «txirrindularitzan lehiatzen bederatzi urterekin hasi nintzen, kasualitatez. Lesakako lehengusu bat karreretan hasi zen eta ateratzeko animatu ninduen. Lehenbiziko karrerara joan eta irabazteko suertea izan nuen. Gustatu zitzaidan eta orain arte, pixkanaka-pixkanaka joan gara». Aitortu zuenez, «lagunarteko afari eta bestak» kendu zizkion txirrindularitzak, «baina satisfazio handiak ere eman dizkit».

ttipi-ttapa

erran.
Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Martin Larralde, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**





KOLABORAZIOAK

SAIOA IRAOLA URKIOLA

Martxoaren zortziko kolosalaz

Lehen kolaborazio honetan, gure herrian nahiz munduan martxoaren lehen asteen izandako kolosalaz hitz egin nahiko nuke, hots, martxoaren zortziaz. Askok eta askok geure buruei, nola ingurukoei egin diegun galderetako bat erantzuten ahaleginduko naiz, edo, behintzat, nire erantzunak ematen. Zerk eragin zuen hainbeste emakumeok-adinduek, gazteek, beltzek, elbarriek, pentsiodunek, langabetuek, etxeko langileek...- kaleak hartu izana?

Eragin zuten faktoreak asko direla uste arren, hiru azpimarratuko ditut: alde batetik, hain gutxi baloratu den eta berebiziko garrantzia izan duen mugimendu feministaren lana. Azken berrogei urteetan egindako kontzientziazio eta pedagogia lanaren fruitua izan da, neurri handi batean behintzat. Beste alde batetik, ilusioa pizteko izandako gaitasuna. Eta hau ez da lorpen makala izan. XXI. mendean, garaipenaren egun handiaren esperantza abailtzeak eta XX. mendeko proposamen eraldatzaileen gainbeherak etsipena

**«PATRIARKATUAK
JARRAITZEN DU,
EGUNERO, GU
ERASOTZEN»**

eragin dute jendartearen, eta, batez ere, ezkerreko mugimenduetan. Azkenik, zer ikusi handia duen beste aldagai bat hauxe izan da: greba formatu klasikoa – eremu produktiboari dagokiona, hain zuzen-gainditu eta borroka bizitzako dimentsio

gehiagotara zabaltzea, bai lantokietara, bai etxeetara, bai kontsumo ohituretara.

Ondorioz, bizitzaren ia eremu guztietan eragin zuen martxoaren zortziak, baina, batik bat, zaintza eta etxeko lanen eremuak. Agerian utzi genuen emakumeok historian zehar, eta, egun ere, egiten ditugun zaintza lanak ezinbestekoak direla jendartearen eta bizitzaren erreproduktzioarako. Egun batez bada ere, emakume askok elkarrekin bizkar gaineko motxila kendu eta atsedean hartu ez ezik, lan horien guztien aitortza ere aldarrikatu genuen.

Argi dago azterketa eta analisi askotarako bide emango duela aurtengo ekimen honek, baina, ezbairik gabe, pausu kualitatibo bat eragin du Euskal Herriko emakumeon eskubideen aldeko mugimenduan. Legitimitatea eta autoritatea irabazi dugu feministok herri honetan, ez instituzioen edo eragileen aldetik, askotariko emakumeen partetik baizik. Eta hori lorpen ikaragarria da. Zorionak, kalean, etxean, lantokietan, ohean... greba egin zenuten guztioi.

Hala ere, patriarkatuak jarraitzen du, egunero, gu erasotzen, adibide gisa ditugu, bai 'La Manadaren' epaia, bai hilabete batean izandako erailketa matxistak ere. Horregatik, borrokan segitzea dagokigu, orain arte bezala, emakumeon arteko enpatia ariketa erradikala eginez.

XABIER BURGAÑA BIDAIZI ELKARTEA

Makrobiotika

Zer da makrobiotika? Horretan gabiltzanok hainbat irizpide ditugu galdera horri erantzuteko. Askorentzat, bizitzeko filosofia bat da; beste askorentzat, naturarekin bat eginik bizitzea da; batzuentzat, osasuntsu bizitzea; eta nola ez, askok uste dute makrobiotika gaixo daudenen elikadura dela osasuna berreskuratu eta mantentzeko...

Artikulu honetan, elikadura makrobiotikoari buruz idatzi dugu. Elikadura bizitzeko behar dugu, baina, nola elikatu? Naturak zein biologiak erantzun hauek ematen dizkigu:

a) Natura: ingurune bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, tradizioz, herri batetik bestera ezberdinak dira (hobe esanda, ziren). Era berean, gure elikadurak urtaro bakoitzera egokitu beharko luke. Gure elikadurak ez du bera izan behar udan eta neguan, udaberrian eta udazkenean.

b) Hestea: gizakion hestea belarjalearena baino motzagoa da eta haragijalearena baino luzeagoa. Beraz, haragijaleak heste motza duenez, azkar digeritzen du. Gure kasuan, ordea, heste

luzeagoa dugunez, jaten dugun haragia gorputzetik kanporatu baino lehen usteltzen zaigu.

c) Odolaren pH-a: gure odolak pH-a pixka bat alkalinoa du, animalia belarjalearen antzera. Gure odolaren pH-a orekatuta izateko, azidotzen duten

**«NATURA KONTUAN
HARTU GABE
ELIKATUZ OSASUNA
KALTETZEN DUGU»**

elikagaiak murriztu behar genituzke, eta odola alkalinatzen dutenak gehitu, hots, haragiak gutxitu eta barazkiak gehitu.

d) Hortzeria: gure hortz eta haginek zer jan behar genukeen adierazten digute. Haurtxoak garenean, hortzik gabe, titia hartzen dugu. Helduak garenean, 32 hortz ditugu: 8 ebakortz, haragia urratzeko; 4 letagin barazkiak eta frutak txikitzeko; 20 hagin eta aurre-hagin zerealak, haziak, fruitu lehorrak eta lekaleak murtxikatzeko. Beraz, gure elikaduran, zereal osoak, barazkiak eta fruitu-lehorrek %62,5a osatu beharko lukete; frutak %12,5a eta haragiek %25a.

Lurrak gure gorputzak behar duena sortzen du: klima beroko lekuetan, gorputza hozten duten elikagaiak; eta lurralde hotzetan, berotzen dutenak. Jin eta jang legearen arabera, jin-ek jang sortzen du eta jang-ek jin. Karibean, bero asko egiten duenez, fruta asko, gozoak eta ur asko dutenak ematen ditu lurrak, gorputza freskatzeko. Poloetan, hotz handiko lurraldeetan, ez dute barazkirik eta koipe asko duten abereez elikatzen dira. Jang elikadura behar dute gorputza berotzeko.

Zer esan nahi du honek? Naturari begira elikatu eta garaiko eta lekuko elikagaiak hartu behar ditugula. Egun, munduko leku batetik bestera mugitzen dituzte elikagaiak, eta gu, sena galduta, ikusmenarekin, zapoarekin... elikatzen gara. Natura kontuan hartu gabe elikatuz, gorputza hozten diguten elikagaiak neguan hartzen ditugu (tropikoko frutak, lekak, tomateak, kuiatxoak...), edo, udan, bero handia egitean, barbakoak egiten ditugu nonahi... gure osasunaren kaltetan.

11 GALDERA LABUR

IBAN ESKUDERO GOIZUETAKO GAZTEA

«Gakoa aurkarien jokoa iragartzea da»

Nor da Iban Eskudero?

Goizuetako gazte bat, bidaia-zalea eta friki samarra.

Zer zaletasun dituzu?

Informazio eta Komunikazio Teknologia gustatzen zaizkit: ordenagailuak, mugikorrak, dronak... Bestalde, mendian, oinez edo bizikletaz, ibiltzea ere gustatzen zait.

Muslaria ere bazara...

Hamasei-hamazazpi urterekin, gaztetxean sartu ginenean, musean aritzeko zuten zaletasunak bultzatuta, halabeharrez ikasi behar izan nuen. Orduan arratsalde osoa musean pasatzen genuen... Gaur egun oso tarteka aritzen naiz.

Euskal Herriko Txapelketan 32 onenen artean... Zer sentitzen da hori entzutean?

Harrotasun puntu bat. Hainbeste bikoteri aurre egitea ez

da erraza. Zortea alde izan genuen, eta horra hor zortearen emaitza!

Zein da musulari ona izateko sekretua?

Ez nukeen musulari ona naizenik esan... Baina, nire ustez, aurkariak jokatzeko modua igartzean dago gakoa: asko arriskatzen duen, gezur asko edo gutxi esaten dituen jakinez gero...

Bikoteak elkar ulertzea ere garrantzitsua izanen da, ezta?

Noski. Alain eta biok elkarrekin jokatzera ohituak gaude. Nik segururik jotzen dut, berak gehiago arriskatu ohi du. Horrela, bata bestearen gabeziak betetzen ditugu.

Txapeldunen aurka galtzea ez da erronka makala!

Neurri batean guri esker dira txapeldunak (irriz). Sekulako



kartak heltzen zitzaizkien, eta horren kontra ez dago ezer egiterik. Beraien kontra galdu genuenean finalera iritsi eta irabazteko eskatu genien... eta halaxe egin zuten. Merezita irabazi gainera...!

Hurrengo txapelketaren batera begira hasi al zarete?

Herritik kanpo jokatu genuen lehendabiziko aldia izan da eta ez dut uste askoz gehiagotan aterako garenik. Baina

hurrengo Euskal Herriko Txapelketara ziur joanen garela.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Lasaitasunak eta ingurukoak pozik daudela ikusteak egiten nau zoriontsu.

Inguruko txokorik politena?

Elama ingurua, Artikutzan dagoena, ederra da.

Amets bat?

Gustatzen zaidan hartan lan egitea eta horretatik bizi ahal izatea.

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

ZUK ttipi-ttapi

ZURI mecna

Bagoaz, baguzi, bagazi ttipi-ttapa haziz!

Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkizu

MECNAk zuri 40€ bueltatuko dizkizu

40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortzean

ONURA FISKALA PARTIDARERENTZAT

Egindako donazioaren 150a itzuliko zaizu errenta aitortzean lehen 150 €-tan, eta 140a kopuru haundagoetan.

Informazioa lortu nahi baduzue deitu 948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin hamemanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoan

LAGUNDU AURREZTU

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11

t.tabernabera@gmail.com

www.tabernaedariak.com

IRAKURLEAK MINTZO

Tokiko egitura berri bat Nafarroan, landa eremuko despopulazioari aurre egiteko**XABIER LASA**

Duela aste batzuk NUKFeko presidenteak Nafarroako populazioaren azken hamar urteotako bilakaerari buruzko ikerketa bat aurkeztu zuen Legebiltzarrean. Azterketaren konklusioak larriak dira eta alarma piztu dute instituzio eta komunikabideen artean.

Datuek baieztatzen dute Nafarroako %6ko populazio hazkundea izan duela azken hamar urteotan baina, oroz gaindi, populazioaren lurralde barreneko kokapenean dagoen asimetria azpimarratzen dute. Nafarroako 643.000 bizilagunetatik 345.000 (%54a) Iruñerrian bizi gara eta gainerakook gainerako zonaldeetan. Populazio dentsitatearen arabera konparaketa egiten badugu, Iruñerria eta Pirinioak hartuta, egoera honelakoa da: Iruñerrian 1.039 bizilagun/km², Pirinioetako ibarretan, aldiz, 4,1 bizilagun/km². Adierazgarria benetan.

Argi dago hiriburua garapen ekonomiko eta zerbitzuen erreferente gisa sendotzen dela landa mundua desagertze bidean doan heinean. Hori ez da kasualitatez gertatzen, azken hamarkadetan Nafarroan planteatu diren garapen ekonomikoa, mugikortasuna eta bizitza soziala bultzatzeko politikak inguruko eskualdeen pizteari begira pentsatu ez direlako baizik; ez eta eskualde horietan errota dagoen lehen sektoreko ekonomiari begira ere. Aitzitik, lurraldea baztertu egin da erreferente gisa erabaki sozio- ekonomiko inportanteak hartzerakoan. Politikaren eta zerbitzuen egitura zentralizatua proposatzen da, ia beti modu sektorialean pentsatua, arloka eta ez lurraldeka. Guztia mugikortasun erradial batez lagundua, non Iruñea beti zentroa den eta mugitzeko derrigorrezko igarobidea den.

Gertakaria mundu mailakoa da. NBERen 2030 Agendak gure jendartearen hazkunde jasangarria planteatu du erronka, horrek lurraldearen kohesioa barne hartzen du: «Onartzen dugu hiri-ingurunearen kudeaketa eta garapena funtsezkoak direla gure herrien bizi kalitaterako. Tokiko agintari eta elkarteekin lan egingo dugu gure hiri eta herriak berriro eta planifikatzeko elkarte kohesioa eta pertsonen segurtasuna bultzatzeko... Joera eta aurreikuspen demografikoak kontuan hartuko ditugu gure landa eta hiri grapenezko estrategia eta politiketan» (2030 Agenda, 34. art.).

Landa eremua berrindartzeko estrategia argi bat hartzeko tenorea da,

Nafarroako lurralde orekaren eta kohesioaren oinarria izanen dena. Horrela behar luke oraingo joera irauli nahi bada. Ez da aski kezka handiko azalpenak botatzea, zeren eta bota orduko aurreko politika estrukturala jarraitzen baita, kritikatzeko den egoerara eraman duten berberekin.

Arazoari benetan aurre egin nahi badiogu politika berriaren gakoetako bat litzateke toki administrazio egitura sendoa bat eraikitzea, zentralismoari aurre egiteko gai izanen dena, lurraldearekiko erreferentzialtasuna azpimarratuko duena, landa eremuetako garapen ekonomikorako eta zerbitzuen hobekuntzarako oinarri gisa balioko duena. Horretarako beharrezkoa da tokiko planta berri bat ezartzea Nafarroan.

Helburua da udala bultzatzea politika garrantzitsuen eragile nagusi gisa eta modu egokian pentsatutako tokiko sare bat osatzea zonaldeak eraginkortasunez diseinatzeko. Planta berri bat tokiko erakundearen eskumenak bultzatzeko eta alorreko politikak lurraldeari begira planteatzeko. Halaber, udalak hobeki finantzatu behar dira –ez populazio kopuruaren arabera, baizik eta tokiko garapenaren helburuei begira– eta udalez gaindi batzeko zerbitzu eta eskumenak lurraldeari begirako erakundeetan antolatu, eskualdeetan alegia, gaur egun indarrean dauden arloka pentsatutakoen aurrean.

Horretan ari gara duela bi urte baino gehiagotik, Tokiko Administrazioaren Erreformaren prestaketarekin. Parte-hartze prozesua bukatu da eta proposamena Legebiltzarrerara igortzeko unea hurbil da. Erabakiak hartzeko tenorea da, bai eta, diskurtso alarmistatik harago, alderdi politikoen eta gizarte erakundearen aldetik joerak aldatzeko eta desoreka eredu hau kohesionatutako batez ordezkatzeko apustu argi bat egin dela erakusteko ere, eta baliabide eraginkorrez egiteko.

«POLITIKA BERRIAREN GAKOETAKO BAT TOKI ADMINISTRAZIO EGITURA SENDOA ERAIKITZEA DA»

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«Ezin nuen bazterrean utzi plazako zezenen gaia, nolabait esan, unairen lana festa bihurtu duen jokorik zaharrena eta errotuena izan baita gure herrietan, mendez mende. Aurrena ahaztu eta gero gehisko liluratu, beharbada; izan ere, larre-behiez eta unaiez ari den ikerlan batek izan zezakeen bukaerarik ederrena zela ikusi bainuen plazako zezen-festa. Baina argialdi horrek Leitzalarretik Anizlarrera eramana, eta horregatik 'Goizueta: zezenak plazan (1601- 2017)' izeneko atala, honetan Leitzak ez bezalako sona izan duela jakinik Goizuetak (...) Leitzalarreko joerak gainbehera egin zuen XVIII. mendean».

PATZIKU PERURENA
GOIZUETAKO IDAZLEA
AIURRI. 2018.04.20

GOITI ETA BEHEITI



ARGAZKIJABEAXXX

Haurren minbiziaren aurka lanean



Minbiziadun duten haurrak biltzen dituen ADANO Elkartea eta Neuroblastoma Fundazioaren alde 7.000 bildu zituzten apirilaren 28an Elgorriagan.

Kontatu kontatu!

Karrikan zoazela, mendian barna zabiltzala edo bertze nonbait aunitz gustatu zaizun zerbait ikusi duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edo alderantziz, gustatu ez zaizun zerbait ikusi duzu eta hori salatu nahi duzu? Kontaiguzu eta bidalguzu zer den gustatu edo gustatu ez zaizun hori!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaituz Ttipi-Ttaparen bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

BOTA BERTSOA



**IKER
GOROSTERRAZU
ELIZAGOIEN**
ITURENGO
BERTSOLARIA

Herri-galdeketak

Doinua: Gure herri ttiki hau da

*Galdeketak izan dira
bailarako herrietan
Irria, ilusioa
ikusiz aurpegietan
Adituz eta arituz
egoera guztietan
Norbanakotik harago
ekintzetan ta hitzetan
Herria eratu dadin
aunitzen iritzietan
Parte hartu behar dugu
denon erabakietan.*

*Nafar burujabe izan
nahi ote duzu laguna?
Amesten ote zabilza
herrian askatasuna?
Noren eskuetan utzi
nahi duzu etorkizuna?
Aukera on bat ez al da
aitzinean daukazuna?
Guztion erabakia
denon erantzukizuna
Noizbait ailegatuko da
behar dugun erantzuna.*



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauernabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Elektragailuen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Uda honetan GOZA EZAZU ELIZONDOKO ZUREKOLOREN

3 eta 12 urte bitarteko **HAURRENDAKO JARDUERAK** euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (mendi-irteerak, igerilekura ateraldiak, kanpoko jolasak, sormen artistikoa lantzeko tailerrak, ipuinen sorkuntza, dantza, mahai-jokoak).

NOIZ goizez, eguerdian eta arratsaldez.
TALDEAK asteka uztailaren eta abuztuaren.
Irailetik aitzinera arreta psikopedagogikokoak eta tailerrak.
HILABETKO BONUAK.
Informazio gehiagorako: Mendingueta, 8 **ELIZONDO**
T. 646 483 706 | zurekolore@gmail.com



Xulufraia

EMAKUME ARROPA
OSAGARRIAK
DEKORAZIOA

Altzate 18, Bera
T. 948 631 266

«Sorterritik joan ez banintz ez nintzateke pertsona bera izanen»

HASIER LARRETXEAK GORTARI ARRAIOZKO IDAZLEA

Familia eta zura eta basoekin harremana dutenak gogoan, *El lenguaje de los bosques* liburua argitaratu du Hasier Larretxeak. Liburuaz eta orain arteko ibilbideaz mintzatu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA ARRAIOZ

«Landutako opari ederraz» gozatzen ari da hondar aldian Hasier Larretxea Gortari (Arraioz, 1982). Izan ere, Espasa argitaletxearekin *El lenguaje de los bosques* liburua atera duenetik, «ezagun eta ezezagunen aldetik mezu abegikorrak» jasotzen ari da eta kontent dago, «hori ez baita beti horrela gertatzen literaturan». Bere irudiko, «urteetako ilusio eta haziaren uzta» jasotzen ari da. Badira hamabi urte sorterrira utzi eta Madrilera joan zela bizitzera, eta hantxe segitzen du, baina sorterriaz atzendu gabe.


Hamabi urte Madril. Aldaketa haundia izanen zen Arraioztik Madrilera joatea, ezta?

Izugarritzko aldaketa izan zen. Madrilera iritsi nintzen artio ez nintzen kontziente zer nolako mundu aldaketa suposatu zuen niretzat. Dena zerotik haste horrek eta urte hauetan guztietan nire kabuz hainbat bidezidorretatik aitzinerat egin ahal izateak libreago eta indartsuago egin nau hiri haundiak, ez baita erraza bizitza aitzinerat eramatea, nahiz eta zure tokia eginez gero, hainbat esperientzia eta aukera eskaintzen dizkizun. Mundu zabalera irekitako leihoak dira hauek. Urte hauen balantzea ezin hobea da. Sorterritik kanpo joanen ez banintz, nire kasuan ez nuke osatu dudana literatur ibilbidea osatuko, eta ez nintzateke pertsona bera

izanen. Distantzia fisiko eta emozionalari esker hainbat kate askatu nituen. Denborarekin eta identitatearen zurtinetatik barna sorterrian sustraitu ditut arnasa eta pentsamendua, prozesu pertsonal baten ondorioz. Bizitzan, hazi ahal izateko eta zoriontasun partzial hori eskuratu ahal izateko norberaren baitara begiratu eta hain gustukoak ez ditugun geruza horiekin ere mintzatu eta sakondu beharra dago, nahiz eta esentzia eta ariketarik errazena eta toxikoen norberarenak bertzeengan ikusi eta kritikatzan eratzen den dinamika den, zoritxarrez.

Fisikoki sorterritik urruti, baina literaturaren bitartez hurbil zaudela erran daiteke...

Distantziari eta absentiari esker niretzat iturburu eman korra da paisaia emozional, familiar eta geografiko hori, kontuan harturik ez-fikziozko liburuak deigarrienak direla niretzat, dietario, autobiografia eta gisako liburu miszelaneoak. Bizitzatik eta errealtatetik duten istorio eta gertakari horiek guztiek, beti ere natura eta egunerokotasunaren talaia sakonean. Baliagarria zait, gainera, interesatzen zaizkidan gaiak buruz gogoez egiteko, mistizismo eta magizismoz borobilduak.



Hasier Larretxea azken liburua eskuetan. ZURI NEGRIN

***El lenguaje de los bosques* liburua da zure azken lana. Nola aurkeztuko zenuke?**

Familiari eta zura eta basoen inguruan harremana duten pertsona egin nahi izan diekan omenaldia da liburua. Eskualdetik abiatzen da, bertan iragan direlako hainbat istorio, eta bertzeak bertze, Pirinioetako eta Ultzamako basoetarik barrena joan-etorriak egiteaz gain, hainbat perspektiba eta protagonistatik abiatuta hainbat gertakari, gogoeta eta ikusmira biltzen saiatu naiz. Entsegutik badu, baina badu narrazioaren pulsutik, poesia tartean, begirada antropologikoa, musikaren presentzia, artearena, ikuspegi ekologikoa... Liburu anitza eta poliedrikoa da, natura eta basoekin elkarbizitza orekatu bat izateko gonbidapen eta proposamen batekin.

Ez da gela batean boligrafoa hartuta egindako liburua izan...

Inplikaziorik haundiena eskatu didan liburua izan da. Gaia, gainera, oso zabala da. Basoetan kokatu eta kotatu nahi nuen liburuaren diskurtsoa, nahiz eta denborarekin ohartu nintzen hainbaterako ematen duela gaiak. Alde batera utzi behar izan ditut hainbat istorio eta gertakari. Hainbat bidelagun daude liburu honetan eta izugarri aberasgarria izan da niretzat beraiekin solastatzea eta uneak elkarbanatzea. Izan dira aitzinerat egiterik ez nuela uste nituen blokeo uneak. Exijentzia haundia jarri nion nire buruari eta ahalik eta duinen egin nahi nuen, ahalik eta zantzu eta ikuspegi desberdin eta anitzenak sartuz. Eta nire izatea nahi nuen, hau da, nirea ahotsa, nire begirada sartu ahal izatea.

Nola hasi zen guztia?

Aspaldian mintzatu nintzen aitarekin bere haurtzaro, gaztaro eta bizitzako hainbat xehetasun eta gertakarietan sakondu nahi nuen. Bere aldetik, hasieran, eta normala den bezala, ezezkoak jasotzen



Hasier Larretxea arraioztarra bere azken lana esku artean duela. ZURI NEGRIN

nituen, ez zuen halako tartetik bilatzen bere baitakoetan sakontzeko. Elkarrekin egiten ditugun emanaldiei esker hasi ginen bertze era batera aita-seme bezala sakontzen eta ezagutzen ez genituen hainbat istorio hasi ziren azaleratzen. Indar haundiko gertakariak buruz mintzo zitzaizkida ohar-tzen hasia nintzen, nonbait eta nolabait bildu beharrekoak. Transmittitu beharreko bizitza eta esfortzu esperientziak.

Historia andana bildu dituzu eta tartean familiako aunitz...

Basoaren lengoia edo hizkuntzarik bada, niretzat, aitarrena da. Ttikitatik hainbat balore eta lezio eman dizkigu edo ematen saiatu izan da egurra eta basoak solasaldi horien sustrai gisa. Hori izan da nire abiapuntua, hortik bainator ni ere bai eta berez, indar eta sinbologia haundiko pentsamendu, ikuskera eta bizipenak daude. Basoko poeta da nire aita. Urteekin bere buruari baimendu dizkion tolestura horiek balore haundia dute.

Argazki eta senarraren ilustrazioak ere liburuan daude. Musika ere presente dago liburuan... Aitortu behar dut Espasa argitaletxeak askatasun osoa eman didala liburuaren osa-

ketan. Etxean ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa izaki, argi genuen kapitulu bakoitza irekitzen dituen irudiak berak egingen zituela. Liburuak irekitzen duen mapa ederra ere berak egin da. Bertzalde, hasieratik hainbat ideia emateaz gain, liburuaren emaitzan berebiziko garrantzia du, berari esker ere gauzatu baita liburuak modu honetan. Bertzalde, Paola Lozano argazkilaria laguna izaki, berarekin joan ginen hainbat aldiz eskualdeko eta Pirinioetako basoetarik barrena liburuak argazki eder eta artistiko horiek lantzeko. Azaleko argazkia berea da. Liburuaren *playlist* bat osatu dut irakurketan lagungarri izan daitekeelakoan. Nire webgunean dago esteka. **Onartu izan duzu, garai batean, zure jatorriaz solastatzea ez zenuela gustukoa. Orain, ordea, bai. Zer aldatu da?**

Pertsona eta idazle gisa nire prozesu pertsonala azaltzeko argi izan dut sorterrira itzuli

ahal izateko lehenik joan behar izaten dela. Bertakoa baloratu ahal izateko faltan botatzea. Eta noski, garbiketa hori inplizituki dator. Alta, nire ingurunean euskarririk aurkitzen ez nuen garaian, Iruñean edo Donostian topatzen nituen haizatzen ninduten disko, film edo liburuak. Gaiak ala ikusmirak enfokatzearen aldaketa heldutasun pertsonal batek dakar. Norberaren baitako baretasuna iraganaren arantza eta argi-ilunak parez pare lantzearekin dator, kotatzen gaituzten mamuak uxatzearekin. **Aitarekin zenuen eta duzun harremanaz ere maiz aritu zara.**

Oso harreman polita eta sanao dugu duela zenbait urtetatik hona. Elkarrekin emanaldiak egitetik gure erlazioa sakondu zen. Kasik ezezagunak izatetik bertzearen baitan bakoitzaren bertute eta ezaugarriak ikuskatzera iritsi gara. Bertzea estimatu eta ulertzera. Hor bien aldetik egindako ariketa sakona dago eta horri esker

ari gara azken urte hauetan amarekin batera egiten ditugun emanaldi eta bidaietan gozatzan. Aitaren profila genealogiaren profila da eta nigandik espero zenaren aitzinekoa. Aitaren irudia presente dago bera herri-kirolaren esparruaren errepresentazioa delako. Eta nigandik hori espero zen. Zenbait urtez Larretxea abizena niretzat zama bat zen. Nik banekien nigandik espero zena ez nuela beteko.

Familiari eta iraganari buruz aritu zara liburuan, baina gaztelaniaz argitaratu duzu....

Deigarria suerta daiteke, baina nire kasuan bai euskara baita gaztelania ere era naturalean erabiltzen ditut idatzi ahal izateko, gaztelania eguneroko hizkuntza gisa erabiltzen baitut Madrilan. Bi hizkuntzak baliagarriak zaizkit batean adieraztea kostatzen zaidana bertzean egiteko. Ohartu naiz gaztelaniaz errazagoa zaidala testuinguru familiarreko testuak idaztea, non oroimenezko iragan hori sakonean dagoen. Euskaraz, aldiz, poema sinboliko eta espermentalagoak ateratzen zaizkit, nahiz eta sakonean errealismo zantzuak ukan sinbolismo haundiagoko idazketa baterako joera dut.

«ZORIONTASUNA LORTZEKO NORBERE BAITARA BEGIRATU BEHARRA DAGO»

«INPLIKAZIORIK HAUNDIENA ESKATU DIDAN LIBURUA IZAN DA»

40 urte euskara plazara ateratzeko lanean

Sarako Olhain Ikastolak 40 urte bete ditu aurten eta urteurrenaren karietara, hainbat ekitaldi egiten ari dira ikasturte honetan. Igande honetan egingen duten ikastolaren besta ere berezia izatea nahi dute eta egun osorako egitaraua prestatu dute

G. PIKABEA SARA

Ez Saran eta ez inguruan ere, nehork gutik pentsatuko zuen lagun batzuen arteko egitasmo hura hain urrun ailegatuko zenik. Baina oztopo guztien gainetik, Sarako Olhain Ikastolak aitzinera egin du eta duela 40 urte hiru ikaslerekin hasi zen proiektu hura, gaur egun, 122 ikasle dituen ikastola izatera ailegatu da.

OlhainElkartearen babesean, 1977an sortu zen izen bereko ikastola, Maite Andiazabal ogi banatzaileari esker. Halaxe kontatu digute Sabine Endara, Marie Pierre Pradere eta Pantxika Paterne burasoek, Maiana Mendiburu ikastolako irakasle ohiak eta burasoak eta Marie Delpech ikasle ohiak eta burasoak: «Saran bizi zen; etxez etxe ogi banatzen ibiltzen zen, eta bere turnada denboran burasoak ikastola sortzeko motibatu zituen, nahiz eta berak haurrik ez izan».

Hala animatu ziren Raphael Delpech, Mañu Endara eta Christophe Seminarioren familiak. Hiru haur horiek izan ziren Sarako ikastolako lehenbiziko ikasleak. Jone Tremont irakasle zutela, bulantegian (okindegia), egun Zazpiak Bat Dantza Taldearena den lokaletan, hasi zituzten eskolak. 1979 aldera, apezaren etxerat joan ziren, Tremont eta Bernadette Bera irakasleekin. 1985an, egun gaztetxea eta liburutegia aterpetzen dituen etxerat lekualdatu ziren, Eliaxabet Lixeratzu andereñoarekin.

Hastapeneko urteetan, Ama Ikastola izan zen, hau da, 3

eta 6 urte bitartekoak hartu zituen: «Lehen Maila egitera Donibane Lohizunera joaten ginen, furgoneta zahar batean. Burasoek txandaka egiten zuten furgonetaren gidatzea», dio Marie Delpechek. Bera ere horrela ibili zen. 1988an, or-

dea, sei ikaslerekin, haur guti zirela eta, ikastola hetsi egin zuten.

Hastapen gogorra

Hastapeneko urte haiek ongi gogoan ditu Ttoni Basurcok. Sarako ikastolako buraso ohia



1986. urtean ikastolakoak Olentzerorekin. UTZITAKO ARGAZKIA



Ikastolako burasoak eta zuzendaria ikastolako atarian. TTPI-TTAPA

**HIRU IKASLEREKin
HASI ZEN IKASTOLA
ETA GAUR EGUN,
122 IKASLE DIRA**

**IKASTOLAREN
SORRERAN
SUSTENGUA FALTA
IZAN ZUTEN**

eta amatxi da eta harrotasunez dio hantxe dituela lau bilobak. Aspaldi murgildu zen ikastolen munduan: «gazterik hasi nintzen Donibane Lohizuneko ikastolak antolatzen zituen ekitaldietan laguntzen eta 1977an bertan hasi nintzen lanean. Militanteak eta abertzaleak izanez, Euskal Herriko eskola eraikitzen lagundu nahian aritu gara beti», eta beretako, «Seaska Euskal Herriko proiektu politiko batean sortu zen. Amets bat baino aintz gehiago izan zen».

Sustengu falta tarteko, ikastolen sorrerako urteak zailak izan zirela nabarmendu du: «laguntzarik ez genuen, eta gainera, boterea kontra genuen. «Herriko Etxe gehienek ez zuten sustengatzen eta herritarrek ere begi txarrez ikusten gintuzten. 'Enbata zikinak', 'español horiek itzul daitezela etxera' eta gisakoak erraten zizkiguten». Saran ere, «oztopo haundiena herritarren begirada» izan zela azpimarratu du. Baina aitzinera segitu zuten: «guk sinesten genuen. momentu txarrak eta latzak ezagutu ditugu, baina amets eta proiektu berak genituen, eta borroka horrek hegala eman zizkigun». Horretarako, «elkartasuna hitz nagusia» izan omen zen.

1984an, Ttoniren semea Sarako ikastolan hasi zen, baina ikastolan saratar guti zirela erran digu Basurcok: «semea Sarako ikastolan ezartzea arrunt naturala izan zen. Baina ikasle, familia eta saratar guti ziren. Gu Ziburutik etorri ginen, bertze batzuk Pausutik, Bearnetik, Hegoaldetik...». Are gehiago, «Hezkuntza Nazionalak Ikasbi (elebiduna) lehen gela ireki zuen Saran, Seaskari trabak agertzeko».

Berriz lanean

1988tik 1993ra haur kopuru eskasagatik hetsia egon ondoren, 1993an berriz atek ireki zituen ikastolak, Omordian, 11 ikaslerekin, Miren Halty irakasle zutela. Handik



Sarako ikastolako ikasleak 1982/1983. ikasturtean. UTZITAKO ARGAZKIA

aitzinera, urtetik urtera ikasle kopuruak goiti egin zuen: 1997/1998. ikasturtean 14 ikasle ziren; 2003/2004an 24; 2007/2008an 53, eta azken ikasturtean 122 ikasle dira; 80 familia guztira. Ikastolako burasoen emandako datuen arabera, «gaur arte 286 haur pasatu dira ikastolatik eta 169 familiak ezagutu dute elkarte eta bere bizi aberats eta dinamikoa».

2000/2001. ikasturteaz geroztik, Olhain Ikastolak Mendi bista bidean du egoitza eta Ama Ikastolaz gain, Lehen Maila ere eskaintzen dute. Hamar urte arte Sarako ikastolan ibili ondotik, Ziburuko kolegiara joaten dira ikasleak. Halere, Mendi bistan daudenetik aldaketak izan dituzte. Hastapenean, prefabrikatu batzuetan egoten ziren ikasleak. «Pixkanaka gelak egin zituzten. Ikasle kopurua haunditu arau, eskola publikoarena ttipitu da eta pixkanaka eskola publikoak erabiltzen zituen herriko gelak ikastolak erabiltzen ditu».

40 urteko ibilbidean, goitibeheitiak izanagatik, burasoen garbi dute «gaur egun, ikastola biziki integratu dela herrian, herriaren parte dela». Basurco ere kontent da lortutakoarekin:

«gaur egun, ikastola haunditu da eta ez du hastapeneko ikastolarekin fitsik ikustekorik. Hein handi batean, ikastolak herriko laguntza izatea eta familia aintz hunkitzea lortu dugu». Baina bertzetik, «beldur da» ez duelako «lehengo fedea eta sinismena sumatzen. Ez dakit gaur egungo burasoen gazteek ezagutzen duten gure historia, gure borroka».

Hutsuneak

Urtetik urtera, haunditzen ari badira ere, oraindik badituzte hutsuneak. Eta arazoa orokorra da. Duelahilabete batzuk, Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak «alerta gorria» deklaratu zuen: heldu den ikasturtean, 230 ikasle gehiago izanen dira ikastoletan eta Hezkuntza Ministerio frantsesak ez du irakasle berririk jarriko. Burasoen erranetan, «Saran ere nabaritu dugu eragina. Gelaka, haur gehiago izanen dira». Leku arazoaz ere mintzatu dira:

«BELDUR NAIZ EZ BAITUT LEHENG FEEA SUMATZEN»

TTONI BASURCO, BURASO OHIA

«ikastola aintzetzan leku arazoak dituzte. Ikasle kopurua haundituz doa, baina egoitzek ez dute bide beretik segitzen». Saran ere berdintsu dabilta: «badira hamar urte Herriko Etxeari gela gehiago galdegiten ari garela. Konparazio batera, Ama Ikastolan motrizitatea garrantzitsua da eta Sarako ikastolan ez dugu motrizitate gelarik. Gainera, aspalditik bi gela prefabrikatu ditugu». Ikastolaren eremua Herriko Etxeara da, eta alde horretatik, «laguntza badugula» aitortu arren, gaineratu dutenez, «ez gara egoera bikainean». Kanpoko eremua ere «ttipia» dela diote: «Ama Ikastola eta Lehen Mailako ikasleek ez dira kanpoan elkarrekin egoten, aski lekuri ez dutelako».

Euskara ikastolatik karrikara

Saran euskarak duen egoera ere burasoen kezka iturri da. «Euskara ez da ofiziala, eta arriskuan da. Ikastola garatu da, baina ikastolatik kanpo

«IKASTOLA BIZIKI INTEGRATU DA HERRIAN»

SARAKO IKASTOLAKO BURASOAK

Ikastolaren besta igandean

- **11:30** ikastolatik kalejira Saran'Garekin.
- **Ondotik** haurren kantaldia plazan.
- **12:30** Txotx! Kupelen idekitzea.
- **13:30** Sagarnotegi bazkaria, Saran'gak alaitua.
- **14:30** Haurrentzat joko eta puzgarriak.
- **17:00** Xutik eta Bull DJa.

euskara guti entzuten da. Nahiz eta ikastolan beti euskararen erabilera bultzatzen saiatzen garen, ez da lortua». Uste berekoa da Basurco: «gure haurrak ttipiak zirelarik jostetara eta erosketak egitera euskaraz baizik jakinez joaten ahal ziren. Gaur egun, toki aintzetzan hori galdu da. Euskara arriskuan da, eta erne egon behar dugu». Burasoen, ordea, ez dute etsitzeko asmorik eta karriketan euskara gehiago aditu dadin «gogotsu eta motibatua» daude. Ikastolaren geroa, behinik behin, «aski positiboki» ikusten dute: «orain dela 40 urte ikastola nondik abiatu zen ikusi eta gaur egun non den ikusita, izigarriko garapena egin duela bistakoa da. Beti badira lanerako prest diren burasoen eta beti izanen dira haurrek ikastolan euskaraz ikastea nahi duten burasoen».

Ilusio eta erronka horietaz ahantzi gabe, igande honetan, maiatzak 20, egiten duten bestari begira jarriak dira orain Olhain Ikastolakoak. 40. urteurrenaren karietara, buruiletik honat hainbat ekitaldi egin dituzte eta igandeko ikastolaren besta ere berezia izatea nahi dute, trabak traba aitzinera egin dutelako eta badutelako zer ospatua.



Nafarroako bertso eskolako gaztetxoak Leitzako Peru-Harrin. BERTSOZALE ELKARTEA

Nafarroako gazteen bertso eskolen eguna izan dute

Arantzako Kattin Madariaga (LH 3 eta 4) eta Berako Amaiur Goñiren (LH 5-6) bertso-paperak saritu dituzte Leitzan

TTIPI-TTAPA LEITZA

Maiatzeko lehendabiziko igandean Nafarroako gazteen bertso eskolen eguna izan zuten Leitzan. Eguna Nafarroako bertso-paper lehiaketako sa-

riak banatzeko aprobetxatu zuten. Iruñea, Barañain, Orkoien, Atarrabia, Baztan-Bidasoa, Leitzaldea, Larraun eta Sakanako bederatzi eta hamaibost urteko 121 gaztetxo bildu

ziren ikasturteari amaiera emateko hitzorduan eta eguraldia lagun, giro ederra izan zuten.

Goiza jolasez jolas pasa ondotik, sariak banatu eta bazkaltzeko tartea izan zuten. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan Kattin Madariagaren lana saritu zuten; 5. eta 6. mailakoen artean Amaiur Goñirena eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan Beñat Astizena. Bazkalondan Peru-Harrira bisita egin zuten eta Perurena harri-jasotzaileraren azalpenak entzun ahal izan zituzten.

Ikasturte honetan 18 urtetik beheetiko 350 ikaslek landu dute bertsolaritza Nafarroako bertso eskolatan, herrialdean dauden 40 taldeetako batean. Astean behineko maiztasunaz, bertsogintzaren oinarriak jasotzearekin batera.

Sarak ekainaren 9an

Bertsolari gaztetxoek Saran izanen dute hurrengo hitzordua ekainaren 9an. Euskal Herriko Eskolartekoa jokatu da eta Leitzako Xabat Illarregi eta Berako Ekhiñe Zapiain izanen dira Nafarroako ordezkariak, txapel-dun eta txapel-dun-orde izan baitira.

'Herriko doinuak' maiatzaren 26an Elizondon

'Herriko doinuak' izenburua rekin, antzerkia, musika eta dantza uztartzen dituen jaialdi berezia antolatu dute Elizondoko Baztan pilotalekuan maiatzaren 26an. Larunbatean 20:30ean, Artaxonako Musika Banda, Artaxona, Iruñea eta Tuterako gaitariak eta Baztango Dantzariak ariko dira. Ekitaldirako sarrerak online eros-teko aukera dago, Rural Kuttaren sarrera salmentarako atarian (8 euro). Julian Romano Ugartegaitariari (1831-1899) gorazarre egin nahi diote ekitaldiarekin.

'Dispersioaren hegiak' solasaldia Lesakan

'Dispersioaren hegiak' goiburupean adineko pertsonak eta dispersioari buruzko solasaldia egingen dute maiatzaren 25ean, ortziraletan 18:00etan Lesakako Udaletxean. Ondotik, dispersioarekin lotutako bertze atal batzuk ere landu nahi dituzte.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



BRANDONEA, s.l.
PREMIAN LIA BARASCAN

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA URTE OSOAN

okaNe

Kanttonberri 12 • BERA
T./Fax: 948 630 018

HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

50. Urteurreneko ospakizun handia prest du Toki Onak

Maiatzaren 19an Ate Irekiak, pilota partidak, herri-bazkaria, zozketak eta bertze hainbat ekitaldi egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Toki Ona institutua mende erdiz egindako lana ospatzen ari da aurtengo ikasturtean. Orain artean ikasle eta irakasle ohiekin mahai-inguruak egin dituzte, egungo ikasle eta irakasleak Toki Onako historia eta istorioaz solastatu dira, ospakizun instituzionala egin dute... Urteurrena borobiltzeko egun handia, ordea, maiatzaren 19an, larunbatean, izanen dute.

Egitaraua

Ikasle eta irakasle ohi, egungo langile, inguruko herritar eta gonbidatuak egun ederraz gozatzeko egitarau zabala prestatu dute. 10:00etan institutuko ateak irekiko dituzte

eta 12:30 bitarte, bertaratzen direnek ikastetxea ezagutzeko aukera izanen dute. Bien bitartean, 11:00etan, Beñat Mitxelena eta Jon Olaizolaren arteko pilota partida izanen da ikusgai, Eztegarra pilotalekuan. 12:00etatik aitzinera Ricardo Barojako frontoia irekiko dute, inguruan dabilzanek zintzurak freskatzeko. 14:00 aldera Ricardo Barojako sukaldean prestatutako menua eskainiko da. Arratsaldean dantzarako tarteak izanen dute, 16:00etatik 19:00etara. Ordu berean zozketa-txartelen irabazleak jakinaraziko dituzte. Irabazleek Elgorriagako bainuetxean zirkuitua, Irisarri Landerako sarrera edo Martiko loteak jasoko dituzte.



Apirilaren 27an egin zen ekitaldi instituzional jendetsua. UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Errandonea Memorialean oroigarriak

Felix Errandonea Memorialean eta bertze zenbait zereginetan laguntzaile izan ziren Jose Luis Vazquez (lore-xorta jaso zuten alargunak eta semeak) eta Jose Mari Irigoien (bere lehengusina Tere Fagoaga Irigoienek jaso zuen) gogoratu zituen Gure Txokoak proba hasi baino lehen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Idia eta traktorea Azienda feria egunean

Apirilaren 28an Berako III. Azienda erakusketa egin dute. Bertako ekoizleen salmenta eta idi proba erakustaldia ere egin dituzte. Hain zuzen, idi-parea eta traktorea izan dira aurrez aurre. Behiak, aretxeak, behorrak eta pottokak eta ardiak plazaratu eta hameketakoa ere izan dute abeltzainek.

ANSONEA OSTATUA

Pintxoak | Errazioak | Bokatak | Pizzak
Plater konbinatuak | Karta

ETXERA ERANATEKO JANARIA PRESTATZEN DUGU

Bertan egindako pastel eta tartak / ENKARGOAK HARTZEN DITUGU

T. 948 62 52 74 Foruen plaza, 1 • BERA

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Suakai taldearen 'Raíces' ikuskina ikusgai larunbatean

Harriondoa Kultur Etxean 20:00etan hasiko den emanaldirako sarrerak 8 eurotan salgai daude

AITOR AROTZENA

Suakai taldeak *Raíces* diziplina aunitzeko ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 19an, larunbatean 20:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrerak 8 eurotan salgai daude aitzinetik Xagu eta Telletxea liburudendetan eta Kultura-Turismo Bulegoan. Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuituaren baitan Nafarroako Antzoki Sariak antolatu du emanaldia, udalaren laguntzaz.

Raíces ikuskizunak hainbat arte uztartu ditu: musika, drama, narrazioa... Izan ere, per-

tsonaia nagusia gazte bat da, jatorriz venezuelarra. Gazteak bere aitonaren istorioa kontatzen du, sortzez nafarra, gerra zibila bukatutakoan, alde egin behar izan zuena. Bizimodu kaskar eta pobrezia hartan, Venezuelara alde egitea bertze biderik ez zuen izan.

Zeharkako txirula emanaldia
Kultur ekitaldiekin segituz, Musika Eskolak zeharkako txirula kontzertua eskainiko du maiatzaren 18an, ortzira-lean 17:30ean udal pleno aretoan.

Drogen inguruko gurasoendako tailerrak egiten ari dira egunotan Harriondoa

A. AROTZENA

Drogen inguruko gaietaz hitz egiteko, izan ditzagun gauzak argi goiburupean, Hegoak elkartearen eskutik Bortzirietako gurasoei zuzendutako tailerrak eginen dituzte maiatzaren 17, 24 eta 31n, 17:00etatik 19:00etara Harriondoa

Kultur Etxeko Zumarra gelan. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu du tailerra, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.

Izena emateko 948 635036 telefonora deitu edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatzi behar da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertsomovieda lehiaketan irabazle

Bertsomovieda lehiaketako 7. edizioko sari-banaketa egin zuten maiatzaren 3an Beasaingo Igartza Jauregian. Euskal Herri osoko bideo-lanak saritzen ditu lehiaketa honek eta gazte mailan, herriko bertso-eskolako gaztetxoek *Berdin eskubideetan* lanak eskuratu zuen lehen saria (300 euro).



ENDARA MITXELENA

La Manadaren epaiaren kontra bilkura

Bertze hainbat lekuetan gertatu den bezala, La Manadaren aurka Iruñeko Auzitegi Nagusiak emandako epaiarekin desadostasuna eta haserre handia agertuz, bilkura egin zuten herritarrek apirilaren 28an plazan, *Erasorik ez, erantzunik gabe* eta gisako mezu ugari zeramaten pankartekin.


LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826


Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA


Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com


IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27


"TELLETXEA"
Lorazaintza
Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

T. 619 418 683 | LESAKA | john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

Emaitza bikainak lortu dituzte kenpo kai txapelketan

Romeo eta Barbara De Caceres Arcellus, Eneritz Iturbide, Mikel Iturria, Unai Arburua eta Mikel Indaburuk hartu zuten parte

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 6an Nafarroako Kenpo Kai txapelketa jokatu zen Beran. Hainbat herritarrek parte hartu zuten eta hagitx emaitza onak lortu zituzten. Romeo eta Barbara De Caceres Arcellus, Eneritz Iturbide, Mikel Iturria, Unai Arburua eta Mikel Indaburuk hartu zuten parte txapelketan: Mikel Indaburuk 16 urtekoetan parte hartu zuen eta bigarren geratu zen Katan, hirugarren Kata armarekin eta bigarren konbatean. 14-15 urte artekoetan Unai Arburua txapeldun izan zen Katan, eta Kata armarekin modalitateetan eta azpitxapelduna konbatean. 12 urtekoetan Mikel Iturria txapeldun izan zen Katan. Eneritz Iturbide eta Romeo eta Barbara De Caceres Arcellusek erakustaldia egin zuten.



Herrian kenpo kai ikasten dutenak.

Gasna Feriako kantu bazkarirako txartelak salgai

Ekainaren 3an, Gasna Feriako egitarauaren baitan, Harkaitz Allur eta Maddalen Artzallusek girotutako kantu bazkaria izanen da. Txartelak salgai daude Elutsa eta Herriko Ostatuan maiatzaren 27a arte (helduen txartela 20 euro eta haurrena 12 euro).



ANA INDABURU

Etxalartarrak Herri Aitadan Saran

Maiatzaren 5ean Sara, Urdazubi, Zugarramurdi, Ainhua, Bera eta Etxalarren arteko Herri Aitada ospatu zen Saran. Etxalartik 50 lagun inguru joan ziren. Hainbat probatan ederki moldatzen zirela erakutsi zuten eta sailkapen orokorrean laugarren postua lortu zuen Etxalarrek.



FERNANDO OLAETXEA

Barbereneko Asun Elizalde 100 urte

Maiatzaren 2an 100 urte bete zituen Barbereneko Asun Elizalde. Larraburua jubilatuen elkarteak plaka eta lore-sorta oparitu zizkion. Alkateak ere, herritarren izenean, loreak eraman zizkion. Auzotarrek sorpresa eman zioten eta 30 lagunek maiatzaren 6an Herriko Ostatuan bazkaldu zuten.



JON ALTZUGUREN

Lurritiederrako bestak giro onean

Maiatzeko lehen igandean Lurritiederran bizi edo jaiotakoak bildu ziren auzoko besta ospatzeko. Aurten 65 bat lagun elkartu ziren Landaburuko bordan. Aperitiborako elkartu eta elkarrekin bazkaldu zuten. Gregoria akordiolariarekin kantuan, musean eta partxisean aritu ziren.

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA

T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Erantzun ona izan du Plan Orokorra berritzeko prozesuak

30 herritarrek parte hartu dute parte-hartze prozesuaren barne egin diren lau saioetan

NEREA ALTZURI

Joan den otsail erdialdean, Udaleko Plan Orokorra berritzeko prozesuaren berri emanez egindako bilera informetiboaren ondotik, azken hiru hilabete hauetan, 30 herritarrez osaturiko lantaldea parte-hartze prozesuan murgildua ibili da. Guztira lau saio egin dituzte eta herritarrekin batera, tartean aritu dira udal ordezkariak eta Arrata taldeko profesionalak.

Plan Orokor berria idazteko parte-hartze prozesuan, herria etorkizunean nolakoa izanen den finkatzeko hainbat arlo aztertu dituzte: herri eta landa eremua, eraikuntza mota, mugikortasuna, karrika ereduak, herriko paisaia eta bere babesa, lur kategoriak, auzoak eta abar. Guztiari buruz ekarpenak eta iritziak biltzeko eta horien inguruan solasteko aukera izan dute egin diren saioetan.

Joan den maiatzaren 3an izan zen hondarreko saioa eta oro har, prozesu parte-hartzailea izan dela adierazi digu Mentxu Peña alkateak. Herri-

tarrak gustura aritu direla gaineratu digu, norberaren herriari buruz solastea interesgarria izan delako.

Urte hasieratik lanean

Iaz, Udalak eta Nafarroako Gobernu Landa Garapene-ko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio-ko departamentuak Udaleko Plan Orokorra abiatzeko hitzarmena sinatu zuen. Udalak Plan Orokorra egiteko lanak Arrata elkarte-ri esleitu zizkion. Hori horrela, prozesu honetan, lehenbiziko pausoa herritarren nahi, behar eta kezkek aditzea zenez, herritarren partaidetza prozesuarekin hasi ziren urte hasieran eta arestian aipatu bezala, maiatzaren hasieran akabaila eman zioten prozesu honi.

Saio horietan bildutako guztiaren berri emateko eta ondorioak azaltzeko, bertze bilerarekin bat eginen dute.

Joan den astean, Xorroxin Irratian, honen inguruan Mentxu Peña alkateari egindako elkarrizketa entzungai dago www.erran.eus-en.

Bederatzigarren Mendi Itzulia igandean

Antolaketa lanak aitzindua dituzte Ekaitza Elkartek igande honetan eginen den mendi itzulirako eta dagoeneko azken ukituak ematen ariko da. Igandean, berriz, goiz-goizetik mugimendua izanen da. 06:30etik 07:30era ematen ahal izanen da izena eta itzulia 07:00etatik 07:30era abiatuko da. Herria inguratzen duten mendietan barna, paraje ederrekin gozatzeko aukera izanen dute mendizaleek. Informazio gehiago nahi duenak www.menditzulia.com-en eta Facebooken aurkituko du.

Arantzako Dantza ikasten aritu dira gaztetxoak

Joan den martxo hasieraz geroztik, herritar talde bat, auzolanean, herriko gaztetxoei Arantzako Dantza Luzea erakusten ibili da larunbat goizetan. Guztira zazpi saio egin dituzte eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailatik goitiko neska-mutil kuadrilla bildu da larunbatero. Joan den maiatzaren 5ean egin zuten hondarreko saioa. Gustura ibili dira denak eta abuztuaren 15ean herriko bestetan jende aitzinean dantzatu baino lehen, berriz ere entseguak egiteko bilduko dira.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Eskolako berriak

Gela barrenean eta kanpoan lanean segitzen dute eskolako lagunek. Apirilaren 23an, Liburuaren Eguna ospatu zuten, apirilaren 28an, Igantziko Joko Topaketan izan ziren eta maiatzaren 11n, Haur Hezkuntzakoak Zubietara joatekoak ziren. Hilabete honetan kanpaldiak ere eginen dituzte.



DONEZTEBE
Parrokia karrika, 21 | T. 948 450 266
BERA
Eztegara pasealekua, 26 | T. 948 625 259
691 384 651 (WhatsApp)
arnedo.inda@allianzmed.es
arnedo-inda.allianz.es

ALLIANZ FONDOVIDA inbertsio-funtsen aseguruak

Zure inbertsioetarako aukera gehiago

Zure
aurrezki eta inbertsioak
Allianzen kudeatuko ditugu



2018-05-17 | 710. zk. | ttipi-ttapa 17

Malerreka Eguna herrian izanen da maiatzaren 26an

Udalak herriko elkarte eta taldeak omenduko ditu eta heldu den urteko lekukoa Ezkurrari pasako dio besta akabailan

MAIDER PETRIRENA

Urroztarrei lekukoa hartuta, aldi honetan, Sunbillan ospatuko da Malerreka Eguna. Heldu den maiatzaren 26an izanen da eta egun osoan ekitaldi saila izanen dira.

Larunbatean 10:30ean harriera ekitaldia egingen dute plazan, eta herrietako ordezkariak egunari hasiera emanen diote. Ondotik, Sunbillako Udalak omenaldia eskainiko die herriko talde eta elkartei. Malerrekako musikariak ibiliko dira herrian barna.

11:00etatik 14:00etara artisauek eta talogileak plazan egonen dira eta 11:00etatik 12:00etara dantzariak ere plazan ariko dira. Abesbatzak ere emanaldia eskainiko du. 13:00etan buruhaundiak eta joaldunak ibiliko dira harat eta honat. 14:00etan paella jatea egingen dute Malerreka Kantuz-ek lagunduta.

Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara Malerrekako Mus Txapelketako finala jokatu dute Ulibeltzak elkartearen eta 16:30ean Muxikoak izanen

dira plazan. 17:00etatik 18:00etara, haurrak izanen dira protagonista: txokolatada eta jokoak izanen dituzte eta buruhaundiak kalejiran ibiliko dira. 19:00etan pilota partida ikusgarria iragarri dute: Titin III.a eta Aldabe, Elizalde eta Otxandorenaren kontra.

Lekukoa Ezkurrari

20:30ean zozketa eta mus txapelketako sari banaketa egingen dute. Ondotik, heldu den urtean Malerreka Eguna antolatzeke lekukoa Ezkurrari pasako diote sunbildarrek. 21:00etatik 22:00etara Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da plazan eta 22:00etan herri afaria Ariztigain kanpinuean. Herri afarirako txartelak Malerrekako Mankomunitatean, Sunbillako udaletxean eta Ariztigain kanpinuean eskuratzen ahal dira. Gaurditik aitzinera Oharkabe ariko da plazan.

Aipatu behar da egun honetan Sunbillara mendi martxa ere antolatu duela Malerrekako Gazte Asanbladak.

Herritarrek ederki Nafarroako kenpo kai txapelketan

Eneritz Iturralde Ezkurra, Ibai Petrirena Gorosterrazu, Ekiñe Bertiz Ariztegi eta Nahia Bertiz Babaze beraien irakaslea den Itziar Erasun Eraunzetamurgilekin ageri dira, maiatzaren 6an Beran jokaturako Nafarroako kenpo kai txapelketan.



ASIER ITURRALDE



JOSETXO APEZTEGIA

Ameriketako ibilitako artzainak bildu dira

Ameriketako artzain ibilitako herritarrek maiatzaren 1ean bildu ziren, 1987tik honat urtero bezala. 22 artzain izan ziren aldi honetan, giro ederrean Ameriketako oroitzapenak berriro dituztenak. Herrikoekin batera, Azpilkueta, Ituren, Igantzi, Legasa eta Ultzamatik etorritakoak ere izan ziren.



JOSETXO APEZTEGIA

Frantzian oihanean aritutakoen bilkura

Joan den urtean Frantzian urteetan oihanean lanean aritu ziren eskualdekoek lehen elkarretaratzea egin zuten. Maiatzaren 5ean, berriz, bigarren familia argazkia egiteko aukera izan zuten Ariztigain kanpinuean. Aurtengoan batzuen batzuk bikotekidearekin joan ziren. Ederki ibili ziren.

Herriko judokek dominak lortu dituzte

Nafarroako Kirol Jolasetan, benjaminetan herriko hiru judoka izan ziren: Ander Larraburu –42 kilo–, Julen Lazkano –34 kilo– eta Eneko Ibarra –30 kilo–. Dominak ere ekarri zituzten. Ander 2. eta Julen 3. izan ziren, bakoitza bere kategorian.



BIXENTE IBARRA

Lehendabiziko aldiz argazki rallya antolatu du Udalak

Iñaki Atxa eta Josu Inziarte epaimahaikideek aukeratuko dituzte argazkirik onenak larunbat honetako lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Ez da aspertzeko astirik izanen asteburu honetan, larunbatean eta igandean ekitaldiak izanen baitira. Larunbatean, maiatzak 19, argazki rallya antolatu du Udalak. Halako ekimen bat egiten den lehenbiziko aldia da eta rallya bi gairen ingurukoa izanen da. Parte-hartzaileek 09:00etatik 10.00etara Herrigunean izena emateko aukera izanen dute, dohainik. Izena ematerakoan jasoko dituzte argibideak: gaiak, ordutegiak, zehaztapen teknikoak... Rallya akitzean, parte-hartzaileek egindako lanak aurkeztuko dituzte. Iñaki Atxa eta Josu Inziartek osatuko dute epaimahaia eta lanak baloratu ondotik, bertze egun batean emanen dute irabazleen berri.

Rallyan jorratutako gai bakoitzak bere irabazlea izanen du eta ehun euro hartuko dituzte. Bi sari horiez gain, Udalak bertze 50eko bi sari emanen ditu: bat bertako argazkilaririk hoberenari eta bertzea argazkilarik gazte hoberenari. Sari guztiak bertako saltokietan gastatzeko izanen dira.

Egitasmo honekin argazki bilduma baten hasiera bultzatu nahi du Udalak, herriko irudiak eta txokoak bilduz.

Arratsaldean pintura tailerra

Larunbatean, arratsaldean, pintura tailerra egingen da Santa Luzia plazan, 16:00etatik 18:00etara. Iciar Mikelperizena margolariak bideratuko du tailerra eta horrez gain, bere ikasleek ikasturte osoan egindako lanen erakusketa antolatuko dute. Tailerraren helburua haur, gazte eta helduek margotzea, gozatzea eta barrenean duten artista askatzea da. Tailerraren bukaeran berrendua egingen dute.

Igandean Dantza Eguna

Igande honetan, hilak 20, Dantza Eguna ospatuko dute. 11:00etan, Rebeca Dantza Akademiako kideek eta animatzen direnek Galbaraialde ibilbideko baranda erabiliko dute dantza erakustaldi bat egiteko. 12:00etan, berriz, Santa Luzia plazan hainbat estiloko dantzen erakustaldia egingen dute.

Askin Haur Eskolan matrikula egiteko epea zabalik

Behin-behineko zerrenda argitaratuta, Askin Haur Eskolak matrikula egiteko epea zabaldu du: maiatzaren 21etik 25era izanen da. 2018-19 ikasturtean eskola honetan matrikulatu nahi duten familiek azken urrats hau egin behar dute plaza eskuratzeko.

Ludoteka zerbitzua eskainiko dute udan bi hilabetez

Uztailean eta abuztuan ludoteka zerbitzua eskainiko du Udalak. Hurrengo TTIPI-TTAPAREN zenbakian xehetasun gehiago eta apuntatzeko epeak zehaztuko ditugu. Horrez gain, aipatzekoa da, langileen hautaketa probak ere egiten ari direla.



ERREKA

Judo kirolariak bikain

Errekako judo kirolariak emaitza politak jaso zituzten Mendillorin apirilaren 28an egindako lehiatan. Benjaminen mailan, Amaia Urrozek eta Aimar Sanchezek urrezko dominak lortu zituzten, Ander Larraburuk zilarrezkoa jantzi zuen eta Julen Lazkanok ere domina eskuratu zuen. Zorionak!



AUNITZ ESKUETAN

Herri-galdeketa giro ederrean

244 herritarrek eman zuten maiatzaren 6ko herri-galdeketa botoa. Hautetsontziak ireki eta lehenbiziko botoa eman zutenak herriko bi familietako hiru belaunaldi izan ziren: arregitarak eta argazkian ageri diren ibarrolatarrak. Hortik aitzinera, giro ederra sortu zen egun osoan.

Errekaren Eguna ekainaren 1ean eta 2an

Erreka Kirol Elkarteak urteko hitzordu nagusietako bati begira jarria da. Ekainaren 1ean eta 2an Errekaren Eguna ospatuko du. Aurten ere egitarau dotorea eta ustekabez beteak izanen da. TTIPI-TTAPAREN hurrengo zenbakian zehaztapen guztiak emanen ditugu.



Errekako dantzariak iaz. ARTXIBOA



Mendaur inguruko herritarren elkargune bilakatuko da hilaren 27an.

Maiatzaren 27an ospatuko dute Trinitate Eguna

Bezperan, berriz, Sunbillara, Malerreka Egunera, joanen dira herritarrak

ARKAITZ MINDEGIA

Herritarrek maiatzeko hondar asteburua ekitaldiz josia izanen dute: larunbatean Sunbillara joanen dira, igandean, berriz, herriko giroaz gozatuko dute. Izan ere, hilaren 27an, Trinitate Eguna izanen dute. Herriarrendako ez ezik, eskualdeko aunitzendako hutsik egin gabeko hitzordua bilakatua da. Ohiturari eutsiz, aunitz Mendaur mendira joanen dira goizean, urteroko buelta egitera. Tontorrean gosaldun ondodetik, ermitari hiru buelta emanen dizkiete, eta urteko desio eskatzeko aprobetxatu-

ko dute. Herritarrek enbaltsetan bazkalduko dute eta eguna bukatzeko Iturengo plazan dantzaldia izanen dute. Bezperan, berriz, malerrekarrak biltzeko eguna izanen da.

Malerreka Eguna

Larunbatean herriko joaldun, dantzari, trikitilari eta panderojoleek, 26 lagunek Malerreka Egunean hartuko dute parte. Aurtengoan Sunbilla izanen dute elkargune. Eguna musikaz eta joare soinuaz girotuko dute, eta bakarren batzuentzat eguna gau bilakatuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietara joanen dira kanpaldian

Maiatzaren 21 eta 22an Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleek kanpaldia izanen dute. Haur Hezkuntzako ikasleak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Irisarri Landera joanen dira; gainerakoak, berriz, Arantzako aterpera. Eguna noiz iritsiko esperoan daude dagoeneko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Maiatzeko aingeruak igandero

Argazkian ageri diren Mattin Leiza, Mikel Ezkurra, Izei Bereau, Aloña Aioroa, Naia Apeztegia eta Intza Mikeo neska-mutikoak dira aurtengo maiatzean igandero biltzen diren sei aingeruak. San Martin Elizan izaten dute hitzordua, goizeko mezan.

**BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA**
**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanthonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK MERIDA

Giro ederra maiatzaren 6ko herri galdeketa

162 herritarrek eman zuten botoa maiatzaren 6an egin zen herri-galdeketa: 155ek bai, lauk ez eta hiruk zuria bozkatu zuten. Hautetsontziak ireki ziren tenoretik hasita, ekitaldiak izan zituzten: udaberriko feria, toka jokoa, talo tailerra...



Herritarra botoa ematen. UTZITAKOA

Hiru ibilbide biltzen dituen mapa egin berri dute

Pablo Feoren mapari esker bisitariek Mendrasa, Aurkidi eta Sarekoa auzora ailegatzeko erraztasuna izanen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Joan den urtean Metro Base-ri izeneko proiektua baliatuz, Zubietako hiru auzo ezagutza emateko mapa egin du Pablo Feok. Zehazki, Mendrasa, Aurkidi eta Sarekoa auzoak dira maparen bidez ezagutze- ra ematen direnak. Udalak maiatz hondarrerako paratzea aurreikusi du. Beraz, udan herrira datozen bisitariek herriko sarreran, autobus-geltokiaren ondoan izanen dute ikusgai.

Bisitariei bitartekoak eskainiz

Mapan proposaturiko hiru ibilbideek mendiek eskaintzen duten lasaitasun eta edertasunaz harago, herrian dauden interes handiko elementuak ezagutzeko aukera eskaintzen dute: errota, kisu labeak, monumetu megalitikoak, bordak...



Ibilbideak kolorez markatu ditu.

Ibilbideen ezaugarriak bisitariek herrian pasa nahi duten denbora edota zailtasun mailara egokituak dira. Amezti deritzonak, esaterako, 4,9 kilometro dituen heinean, Mendrasa eta Aurkidik 6,38 eta 9,8 kilometro dituzte, hurrenez hurren.

Era berean, gainbehera, batetik bestera, aldakorra da: 155 metro ditu lehendabizikoak; 308 bigarrenak; eta 631 hiru-garrenak.

Herritarrek Malerreka Eguneko ekitaldian parte hartuko dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Egun haundiak ekarpen ttikiz osatzen direlako, herritarrek ere Malerreka Egunean aletxo bat jarriko dute. Joaldunek ez ezik, herriko dantzariak muxikoak dantzatzeko parada izanen dute hilaren 26an Sunbillan ospatuko den

malerrekarren hitzorduan. Paella prestatzeko laguntza ere eskainiko dute eta beste urte batez, Migel Arregi herritarra izanen da Malerrekan harat honat dabilen lekukoan Sunbillako armaria zizelkatuko duena, beste sei edizioetan egin duen bezala.



IZASKUN ZUBIALDE

%46ak hartu du parte galdeketan

Maiatzaren 6ko herri-galdeketa Euskal Herri osoko parte-hartze handiena izan zen. Ia herritarren erdiak, %46,77ak, eman zuen botoa, 116 lagunek, zehazki: 111 baiezko, hiru ez eta bi zuri bildu zituzten. Trikitiak, talo-jateak eta muxikoak girotu zuten plaza ingurua.

Udaberriko kolekzio berria!

Maindire eskaintza anitza

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634



Bazkarian elkartasun giro polita izan zen. MATTIN LARRALDE

Haurren minbiziari aurre egiteko 7.000 euro bildu dituzte

ADANO elkartearen eta Neuroblastoma Fundazioaren alde besta jendetsua egin da

MATTIN LARRALDE

Nafarroan minbizia duten haurrak eta senideak biltzen dituen ADANO Elkartearen alde herrian egindako besta arrakastatsua izan zen. Apirilaren 28an egin zen eta jende aunitz hurbildu zen. Are gehiago, elkarterako nahiz Neuroblastoma Fundaziorako 7.000 eurotik goiti bildu zituzten.

Egunean ekintza aunitz egin zituzten: toka, haurrendako tailerrak... Paella izan zuten jateko eta bertan solastatu zen Maitaneren ama, Oihana. Eritasuna agertzen den egunetik aitzinera familiaren bizitzak nolako aldaketa izaten duen azaldu zuen eta bere bizipenekin momentu hunkigarriak sortu ziren. Maitanek daukan neuroblastoma eritasuna dela eta, antolatu zuten besta hori, eritasunari aurre egiteko ikerketan segitzeko modu bakarra delako.

Egunean zehar ADANOren kamisetak, eskumuturrekoak, boligrafoak eta bertze materialak saldu zituzten. Antolatzaileek emandako datuen arabera, Neuroblastoma Fundaziorako 3.000 euro bildu

zituzten eta ADANO elkartearentzako bertze 2.686,55 euro. Gainera, elkartearen material salmentarekin bertze 1.340 euro lortu zituzten.

Kontseilaria bazkarian

Bazkaltzera etorri zirenen artean zegoen Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria eta arratsaldean ADANO elkartearen sortu zuen medikua etorri zen, Javier Molina.

Eguna borobiltzeko DJ bat aritu zen eta opari pila zozketatu zituzten.

Elgorriagako Mendi Itzulia igande honetan egingen dute

Zorroilo Elkarateak antolatuta, igande honetan, maiatzak 20, Mendi Itzulia egingen da. Mendizaleak 08:00etan aterako dira herritik, baina 07:45ean, antolatzaileek parte-hartzaile guztiekin argazkia atera nahi dute. Herritik abiatu eta Bos-torratzera igoko dira kirolariak eta han gosaria eskainiko diete. Handik, nahi duenak, Mendaurrera joateko aukera izanen du. Gainerakoek Amezti alde-rako bidea hartuko dute eta urbidean barna herrira jautsiko dira. Gero bazkaria ginen dute Herriko Ostatuan.

Parte-hartze handia maiatzaren 6ko herri-galdeketa

Maiatzaren 6ko herri-galdeketa, parte hartzera deituak zeuden 203 herritarretatik 83k eman zuten botoa, hau da, ia %41ek. Nabarmenezko datua da, izan ere, egun horretan 22 herritan egin ziren galdeketa artean, parte-hartzerik haundiena izan zuen bigarren herria izan zen Elgorriaga, Zubietaren ondotik. Botoa eman zutenetatik gehiengoak baiezkoa erantzun zion *nahi al duzu nafar gisa burujabe izan etorkizuna libre erabakitzeko?* galderari, eta bik ezezkoa eta zuri bozkatu zuten.



MATTIN LARRALDE

La Manadaren epaiarekin haserre

La Manadaren aurkako epaiarekiko desadostasuna agertuz, bilkura eta tailerra egin zituzten herritarrek joan den apirilaren 28an. Tailerrean haurrek eskuen irudiak egin zituzten eta ondotik, jendeari banatu zizkieten. Aipatzekoa da 200 bat lagun bildu zirela.

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generali.es

IKASKETA EDO LAN BIDAIA BAT EGIN BEHAR DUZU?

- ✓ Mediku-gastuak atzerrian (50.000€ artekoak)
- ✓ Istripu-asegurua (50.000€ artekoak)
- ✓ Ospitalizazioa (50€ eguneko)
- ✓ Aberriratzeko eta hilobiratzeko gastuak

Hilabetean **12€**tik aurrera

GENERALI Single protekzioa
Asistentzi pertsonal hoberena zure bizimodurako



Irantzu Pastor eta Leire Ortuoste Bartzelonan. UTZITAKOA

Baztan-Bidasoko turismoaren berri Bartzelonan

Nazioarteko turismo-esperientzien azokarik garrantzitsuenetako batean parte hartu du 'Uraren bailarak' markak

TTIPI-TTAPA

Uraren bailarak turismo-markak eskualdeko turismoa sustatzeko lanean segitzen du eta apirilaren 20an eta 22an, Bartzelonan egiten den turismo-esperientzien B-Travel azokan parte hartu zuen, Nafarroako Gobernuako Turismo Sailak gonbidatuta.

Uraren bailarak Baztango eta Bidasoko 18 udalerri biltzen dituen turismo-marka da eta 2015ean sortu zen Cederna Garalur Elkartearen babesean, turismo-sektorea dinamizatzeo helburuarekin.

Bartzelonako azokan, *Uraren bailarak* markaren standean, Irantzu Pastor, elkarteko tu-

rismo-teknikaria, eta eta Leire Ostuorte, Doneztebeko zinegotzia eta *Uraren bailarak* marka sustatzeko batzordeko arduraduna izan ziren eta biek eskualdean egin daitezkeen bisitaldiak prestatzeko aholkuak eman zituzten, leku berezienei, ibilbideei, jardueri, festei, azokei eta bertze turismo-xarrei buruzko argibideak emanez.

200 lagun inguru hurbildu ziren elkartearen standera eta Pastorren hitzetan, «esperientzia hagitx positiboa izan da, eta agerian utzi digu Baztan eta Bidasoa eskualdeek interes handia sortzen dutela Nafarroara etortzen diren bisitarien artean». Bere hitzetan, «erakusmahaira etorri ziren aunitzek gure eskualdeak bisitatzeo asmoa zuten, eta emandako azalpena entzun ondotik, egonaldia luzatzea erabaki zuten».

B-Travel nazioarteko turismo-esperientzien azokarik garrantzitsuenetako bat da, urtero Bartzelonan antolatzen dena. Aurten sektore pribatuko 200 erakusketarik eta nazio eta nazioarteko 60 xedek baino gehiagok hartu dute parte. Bisitariak 30.000 baino gehiago izan dira.

Beilatoki berria inauguratuko dute maiatzaren 21ean Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Baztan-Bidasoa Ehorzketa Zerbitzuak Donezteben ireki berri duen beilatokia inauguratuko du maiatzaren 21ean, astelehenean. Aparan industrialdeko 1-3 nabeetan egin dute beilatokia eta tokiko erakundeetako ordezkariak eta herritarrei egin diete joateko deia. 12:00etan egingen dute hitzordu hori, eta ekitaldiaren ondotik, luntxa eskainiko dute. Egun horretan, arratsalde ere zabalduko dute lokala, eta 16:00etatik 18:00etara edozeinek bisitatzeo aukera izanen du. Maiatzaren 22tik 25era ate irekien jardunaldiak egingen dituzte, 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 17:30era.

Beilatokiak 440 m² ditu eta Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranako herritarrei zerbitzua emateko sortu dute, baita Bortziriak eta Baztangoendako ere. Harrera eta familientzako gelez gain, hildakoen dako bi areto ditu, guztiz hornituak.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak



**MUEBLES
TELLETKEA
ALTZARIAK**

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Dekorazio proiektu integralak

761 lagunek eman dute botoa herri-galdeketan

Malerrekan eta Bertizaranan %26,38ko parte-hartzea izan da maiatzaren 6ko galdeketan

TTIPI-TTAPA
«Zoragarria izan da, hagitz kontent gaude». Maiatzaren 6ko herri-galdeketa harira, halaxe adierazi diote Aunitz Eskuetan Elkartekoek TTIPI-TTAPARI. Malerreka eta Bertizaranako sei herriekin batera, Euskal Herriko bertze hainbat herritan egin zuten egun horretan galdeketa, eta dagoeneko 202 herrik eta 180.000 herritarrek baino gehiagok erakutsi dute euren etorkizuna erabakitzeko borondatea. Gure Esku Dagok ere balorazio ona egin du: «gaur atzo baino hurbilago gaude elkarrekin eraiki nahi dugun herritik. Etorkizuna guk nahi duguna izanen da».

Parte-hartzea
Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Legasa eta Zubietako 761 lagunek eman zuten botoa, hau da, galdeketa parte hartzera deituak zeuden 2.885 herritarren %28,38ak. *Nahi al duzu nafar gisa burujabe izan etorkizuna libre erabakitzeko?* galderari erantzun zioten sei herrietan

eta Zubietan izan zen parte-hartzerik altuena: %46,77k eman zuen botoa, Elgorriagan %40,83koa izan zen parte-hartzea, Iturenen %37,85koa, Legasan %32,34koa, Donamarian %25,20koa eta Donezteben %16,93koa.

«Emaitzetatik harago, egingdako guztiarekin gelditu behar dugula» uste dute Aunitz Eskuetan Elkartekoek, «herri guztietan izugarria izan zen, jendea hagitz kontent zegoen eta sortu zen giroa sekulakoa izan zen». Izan ere, herritik eta herriarentzat urte osoan egindako lana borobiltzeko moduko giroa izan zuten, Nafarroan erabakitzeko eskubidearen alde, pauso bat gehiago emanez. Herri kirolak, talojatea, txokolatada, musa, partxisa, dantzak, jolasak, mural margoketa... Denetarik ekitaldiak izan zituzten.

Antolatzaileak kontent gelditu dira eta adierazi dutenez, «ibilbidea gorabeheratsua eta intentsoa, baina aldi berean, polita izan da eta merezi izan du». Gaineratu dutenez, «lanean segituko dugu».



Herri-galdeketa sei herrietan utzitako irudiak. AUNITZ ESKUJETAN

Herri-galdeketa emaitzak herriz herri

Herria	Errolda	Parte-hartzea	Bai	Ez	Zuriak	Baliogabeak
Donamaria	364	91 (%25,20)	89 (%97,80)	1 (%1,10)	0 (%0,00)	1 (%1,10)
Doneztebe	1.441	244 (%16,93)	239 (%97,95)	1 (%0,41)	4 (%1,64)	0 (%0,00)
Elgorriaga	203	83 (%40,83)	81 (%97,59)	1 (%1,20)	1 (%1,20)	0 (%0,00)
Ituren	428	162 (%37,85)	155 (%95,68)	4 (%2,47)	2 (%1,23)	0 (%0,62)
Legasa	201	65 (%32,34)	63 (%96,92)	0 (%0,00)	2 (%3,08)	0 (%0,00)
Zubiet	248	116 (%46,77)	111 (%95,69)	3 (%2,59)	2 (%1,72)	0 (%0,00)



Herritarrek ongietorria egin zioten Mikel Aingeruaren irudiari. JAIONE ZABALO

Aralarko aingeruak urteroko bisita egin die herritarrei

Apirilaren 30ean Ezkurran eta Eratsunen izan zen Mikel aingeruaren irudia

JAIONE ZABALO

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Aralarko Mikel aingeruaren irudia Ezkurran izan da bisita. Apirilaren 30ean etorri zen eta ohi bezala, herritarrek ongietorria egitearekin batera, herriko lurrak emankorrak eta osasuntsuak izatea eta bakea eta osasuna eskatu zizkieten.

Horren gurtua den irudi honek urtero Nafarroa iparraldeko 320 bat herritarra egiten du bisita. Hala ere, esan beharra dago, noizean behin eskualdetik ere ateratzen dela. Urtarrilaren 26an, hala nola, Madrilan ibili zen, Chamberi auzoan, eta nafarren San Fermín elizan izan zen.

Herrira egindako bisitaren ondoren, Eratsunera joan zen eta dagoeneko ohitura bihurtu den bezala, handik bueltan Barranka jatetxean ederki afaldu zuen. Indarrak hartu ondoren utzi zuen herria, hurrengo urtera arte agurtuz.



JAIONE ZABALO

Mikel Retegik Lehen Jaunartzea egin du

Maiatzaren 6an Lehen Jaunartzea egin zuen Mikel Retegi Apeztegiak. Eguraldia lagun, familian eta lagunartean, ederki ospatu zuten eguna. Mutikoak Cecilia Baldarekin jaso du prestakuntza Jaunartzearen zentzua ulertu ahal izateko.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera
Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera **finantziarioa**,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



*Aukera paregabea Donezteben
etxe berria erosteko*



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Euskal Kantuen Egunean izan dira elkarteko 300 kide

Mus txapelketan 14 bikotek parte hartu zuten eta Jose Mari Elizalde eta Agustín Goizueta gailendu ziren

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 298 kide, zortzi musikari eta sei autobus gidarerekin, Dantxarineko Euskal Kantuen Eguna joan ziren. Otxondo jatetxean izan zuten hitzordua eta kantuz girotu zuten mahai-ingurua.

11:30ean, Biok enpresaren laguntzaz antolatutako mus txapelketa azkarrarekin abiatu zuten eguna. 14 bikotek hartu zuten parte. Bapo bakaldu ondotik, ia ehun kanta biltzen dituen euskal kantuen liburuxka bana banatu zieten bertaratutakoei eta zintzurak berotzeko tarteak izan zuten. Josean eta Kristianen gidaritza pean 18:30 bitarte kantuan ibili ziren. Eratsundarrek kantatu zituzten bertsoak bereziki txalotuak izan ziren.

Bazkalondoan, Manuel Loiar-te, Baztanesakoa autobus gi-

daria, oroitzeko tarteak hartu zuten, agudo sendatzea desiraturaz. Animoz eta maitasunez betetako txaloak eskaini zituzkion.

18:30ean Guateke taldeak hartu zuen lekukoa. Kantuak eta kontuak utzi eta dantzan jarri zituzten guztiak. 20:30 arte, bueltatzeko autobusa hartu arte, atsedenik hartu gabe ibili ziren.

Batzuk musikarien emanaldiez gozatzen zuten bitartean, bertzeek mus txapelketako finalak jokatu zituzten. Jose Mari Elizalde eta Agustín Goizuetak irabazi zuten. Bigarrenak, berriz, Jose Luis Zazpe eta Francisco Apeztegia izan ziren; hirugarren, Juan Sagastibeltza eta Miguel Mari Urrutia; eta laugarren Ana Mari Gaztelu eta Pakita Mikelarena. Biok elkarteko Iñaki Ruiz



Giro ederra izan zuten Dantxarineko Euskal Kantuen Egunean. F.ETXEBERRIA

eskutik jaso zituzten garaikurrak. Irabazleek, Biok enpresaren ekarpenari esker, txapela eta magra bana ere jaso zuten; txapeladunordei bildots bat (erdi bana) eman zitzaizen.

Lerro hauen bidez, Arkupeak elkarteko kideek Biok enpresaren laguntza eta Otxondo jatetxearen zerbitzu azkar eta bikaina eskertu nahi izan dituzte.

Azken bilkuran bigarren seihilekoko buletina prestatu dute

Orain arte eginiko bidaien, ateraldien, mendi-irteeren, ikastaroen eta jardueren balorazioa eta hurrengoak lotzeko bilkura egin dute juntako kideek.

Hori horrela, bigarren seihilekoan eginen dituzten ekitaldien berri emanen duen

18. buletina prestatu dute. Era berean, 2019an eginen dituzten jardueren aurreproiektua ere mahairatu dute.

Hurrengo bilkuran herri bakoitzeko ordezkariak emanen zaie, elkarteak egun dituen 2.728 kideen eskuetara ailegatu ahal izateko.



FERNANDO ETXEBERRIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi bidetatik, helmuga berera begira

Hamasei lagun Santiago Bidean dabiltza, bi taldetan banatuta. Iparraldeko bidean dabiltzanek hilabete hondarrerako Galiziara ailegatzea espero dute; bertzeak, berriz, lasaiago dabiltza. Gares pasatuta dute eta maiatzeko erronka Leonera ailegatzea da.



Aste motz bezain ederra izan dute herriko gaztetxoek, maiatz hasieran. UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekitaldiz jositako Aste Kulturala izan dute eskolan

Maiatzaren 2tik 4ra bitarte ez zuten geldirik egoteko tarterik izan Arotzenea eskolan

OLATZ MUTUBERRIA

Maiatzeko lehendabiziko astean herriko Arotzenea eskolan Aste Kulturala izan zuten. Zubiaren ondoko aste motza motzago bilakatu zuten. Izan ere, ez zuten geldirik egoteko tarterik hartu: ipuin-kontaketak, askotariko tailerrak, jolasak, aupegi margotzeak, dan-

tzak, aizkora erakustaldia... izan zituzten.

Asteazkenean pilotak egiteko tailerra eta ipuin-kontaketak izan zituzten. Eskolako gaztetxoek ttikien irudimenak martxan paratzeko ipuin eta istorio ederrak kontatu zituzten. Begiak zabal eta belarriak erne zituztela aditu

zituzten kontaketak. Ondotik, aurpegiak margotzen ibili ziren. Biharamunean, goiz osoz, Xorroxin irratiko protagonistak izan ziren. Arratsaldean, berriz, Maria Urrozen eskutik, txapel tailerra egin zuten.

Ortziralean, eskuak lokatze-tan zikintzeko eta horren gustuko dituzten saltsez gozatze-ko aukera izan zuten. Segidan, Irune Izkueren gidaritzapean tailer bat egin zuten eta tailerra aizkolariaren erakustaldia-ekin bukatu zuten. Ortzirale arratsaldean Zunba dantzatzeko eta frutarekin zizka-mizketan ibiltzeko tartea izan zuten.

Astea zapore gozoz bukatzeko, berendu gozo-gozoa dastatu zuten.

Sagardo Eguna izanen dute ekainaren 2an



Giro ederra izanen dute bazkarian.

OLATZ MUTUBERRIA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurtan ere Sagardo Eguna izanen dute ekainaren 2an, larunbatean, herrian. Aspertzeko tarterik utzi gabe, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Goizean herriko lau gazteren artean pilota eta pala desafioa jokatu dute. Ondotik, sagardo bazkaria egingen dute. Bazkariko kupel mugikorraren harat honatak segiko dituzte, txotx egiteko aukerarik galdu gabe. Bazkalondoa musikak alaituko du eta arratsaldean dantzaldia izanen dute. Egunari bukaera borobila emateko, berriz ere mahaiaren bueltan bilduko dira herritarrak.



ATE IREKIAK

Maiatzak 23

Ezin baduzu ate irekietara etorri, deitu eta solastuko gara

www.irungolasalle.eus | 943 62 84 11 | fp@irungolasalle.eus | Elizatxo etorb. 14-16 20303 IRUN

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

 Mekanizazioa

 Mantentze elektromekanikoa

BERRIA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

 Automatizazio eta robotika industrialia

 Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

 Administrazioa eta finantzak

AURREMATRIKULA

EKAINAREN

4tik
15era



Maiatzeko azken igandean eskulangileen azoka izanen dute.

Kultur Aroan murgilduta dago herria

Larunbatean kirolari eskainitako eguna izanen da, goizean txikienentzat eta arratsaldean helduentzat

TTIPI-TTAPA

Joan den maiatzaren 4an abiatu zen Leitzako XLI. Kultur Aroa. Amazabal institutuko ikasleen Urratsez Urrats Berrikuntza Proiektuaren aurkezpenetik hasi eta autodefentsa feminista tailerra, Kattalingune zerbitzuaren aurkezpena, *Ez dok hiru* antzerkia, *Las que faltaban* dokumentala, emakumea, musika eta oholtzari buruzko mahai-ingurua eta *Ni ta punto* gazteen-tzako ipuin saioa izan dituzte.

Ekitaldiek ez dute etenik. Hilaren 17an, esaterako, *Idazlea* zeu zara irakurtzen duzulako ipuin-kontaktetaz gozatzeko tarte hartzekoa zuten, 17:30ean, liburutegian. Asteburuan ere ez da ezer faltako. Ostiralean, 18:30ean Luzia Etxeberriaren eta Ulises Domechen eskutik, ekialdeko emigrazioari buruzko saioa izanen dute. Eguna kantu emanaldiarekin bukatuko dute, Torrea girotuz, 22:30ean. Larunbatean kirolzaleek hartuko dute lekukoa, haurrak eta helduak jardueraz jarduera ibiliko dira. Txikienek 09:00etatik 13:00etara dute hitzordua;

helduek, berriz, 16:30etik 18:30era. Igandeko protagonistak Kiliklon familiako Miru eta Xurdir izanen dira. Musika lagun, dantza, txalo eta algaraz beteko dute zinema, 17:00etan.

Hurrengo astean ez da atse denik izanen: literatura, hitzaldiak, jokoak, kirola, musika, azoka... antolatu dituzte. Hilaren 22an, asteartean, Ana Jakak poesia errezitara eskainiko du, 19:00etan, liburutegian. Biharamunean, 23an, *Gurean* dokumentala ikusteko aukera izanen dute (18:30ean, Atekabeltzen). Ostegunerako Siriako errefuxiatuen egoerari; eta ostiralerako euskal kultura tradizionalaren oinordekotzari buruzko hitzaldiak aurreikusi dituzte, Atekabeltzen, 19:30ean eta 18:30ean, hurrenez hurren. Tribalzale feministen txanda izanen da ondotik, 19:30ean. Maiatzeko azken larunbatean Bardeetako irteera (07:00etan plazan), Siriako hamaiketako solidarioa (12:00etan plazan), kantu saioa (19:30ean Izaietan) izanen dute; igandean, berriz, 40. eskulangintza azoka.

Udako tailer eta haur txokoan izen-ematea maiatzaren 25ean irekiko da

TTIPI-TTAPA

Udalak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, euskara zerbitzuarekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, haur txokoa eta udako tailerrak antolatu dituzte.

Ikas-mailaren arabera bi talde sortuko dituzte eta lau txanda eskainiko dituzte aukeran: ekainak 25-29, uztailak 2-6, 9-13 eta 16-20, zehazki. Maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitarte eman daiteke izena. 012 telefonora deituz da-



Bi talde egingen dituzte.

tuak eman eta ordaindu beharrekoa adieraziko dute. Plazak mugatuak izaki, herritarrak lehenetsiko dira, eta izen-emate hurrenkerari erreparatuko zaio.

Estazio zaharrerako asmo berriak

Natur Bideen Egunean, Zabaleta alkateak Ederbidea proiektua aurkeztu zuen. Eraikinean bizikleta gordailu eta erreparazio gunea egingen dute. Aurrera begira alokairu zebitzua jarri nahi dute.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Manadaren sententziak altzarazi ditu

Justizia patriarkal eta matxistarik ez! lelopean, elkarretaratze jendetsua egin zuten leitzarrek apirilaren 27an. Iruñeko sanferminetako bortxatzaileei, Manada izenez ezagutzen diren taldeko kideei, jarritako sententziarekiko desadostasuna ozen aldarrikatu zuten.

Mugikortasunari begira hainbat neurri hartuko dituzte

Maiatzean jarriko dira martxan, leitzarren ongizatea, irisgarritasuna, jasangarritasuna eta segurtasuna bermatzeko



Eskola inguruko segurtasun-eza da Udalaren kezka nagusia. UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA

Udalak herritarren ongizatea bermatzeko eta guztientzako irisgarria, jasangarria eta segurua den Leitza eraikitzeko, mugikortasun arloko hainbat neurri hartuko ditu.

Ez da atzotik gaurrera harturiko erabakia. Izan ere, iazko azaroan mugikortasunaren gaia modu parte-hartzailean abiatzeko proposamena egin zuten. Beraien hitzetan «emaitzak ez dira esperotakoak izan baina entzundakoak kontuan hartuz diseinatu ditugu neurriak».

Hiru lan ildo

Mugikortasunari begira abiatuko dituzten neurriek hiru ildo dituzte: trafikoa, irisgarritasuna eta segurtasunari lotuak, alegia. Hala, herritarren ongizatea lortu nahi dute. Horretarako, trafikoari begira ohitura txarrak uzteko abisuak jarri, inguruko kaleak urbanizatu, espaloiak moldatu eta mugikortasun mugatua dutenakerosoago ibiltzeko moduan jarriko dituzte. Era berean, eskola inguruko arrisku egoerak «kezka handia» eragiten dienez, Nafarroako Gobernuarekin kudeatzen saiatu dira. Azkenean, eskola inguruko segurtasuna Udalak, bere kabuz, moldatuko du. Azken batean, herriko trafiko arazoak moldatzea, oinezkoentzako espazio faltari irtenbidea ematea, oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta oinezkoen segurtasuna bermatzea izanen dute lehentasun. Horrekin «EH Bilduren programan urrats bat aurreratuko dugu» diote.

DENA
ERRAZAGOA
DA HURBIL
BAZAUDE

RURAL KUTXA



Arano, Goizueta, Leitzeta eta Aresoko eskolakoak jai giroan bat egitera animatzeko bideoa egin dute. JAIONE OLAZABAL

Leitzaldeko eskolen arteko zita dute maiatzaren 26an

Aurten, jendea festara animatzeko helburuz, bideo bat egin dute

TTIPI-TTAPA

Nazabal eskolako haur, guraso eta irakasleei dagokie aurten eskolen arteko topaketak antolatzea. Festaren hemeretzigarren edizioa izango da eta egun osoko festan, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako eskolakoak jai giroan elkartzea, aisialdi osasungarria bultzatzea, Areso herria ezagutzea eta berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak lantzea izango dute helburu. Horretarako, egitarau zabala eta askotarikoa prestatu dute.

Egitaraua

Larunbatean 11:00etan emango diote hasiera festari bisitariei ongi etorria eginez plazan. Segidan, joko eta tailerrak izango dira. 13:30ean topaketetako kanta abestu eta dantzatuko dute eta 14:00 aldera mahaien bueltan bilduko dira, baz-

JOKO, KANTALDI ETA EKINTZETAN PARTE HARTZEKO DEIA EGIN DUTE

kaltzeko (paella, postrea eta kafea). Bazkalondoan euskal kantuen txanda izango da eta 16:30ean festa herrian barna zabalduko dute, trikitilarien erritmoan. 17:30ean indarrak berreskuratzeko txokolate jana egingo dute bizkotxoarekin eta 18:30ean emango diote bukaera festari. Antolatzaileek bisitariei autoa konpartitzeko gonbidapena egin diete eta festako joko, kantaldi... eta bestelako ekinztzetan parte hartzekoa.

Bideoa

Parte hartzeko deia eginez, bideo berezia prestatzen ere aritu dira eskolakoak. Maiatzaren 7an egin zituzten grabazioak eta eskolako txikiak egunean bertan dantzatuko duten dantza dantzatzeko ageri dira. Bideoa eskoletan eta gurasoen artean zabaltzeko asmoa dute, denek ikasi eta elkarrekin dantzatzeko.

Zerbitzu anitzetako langile berria kontratatu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Joan den maiatzaren 4az geroztik, zerbitzu anitzetako langile berria du Udalak, Jabier Ansa, hain zuzen. Azken urteotan lan horretan aritu den Joxe Ramon Zabalak erretiroa hartu ondotik, beste langile bat aukeratzeko prozesua hasi zuen Udalak. Hiru langile aurkeztu ziren deialdira eta apirilean hautaprobak egindakoan, gainditu zituen herritarra Jabier Ansa izan zen.

Askotariko lanak egitea egozituko zaio Ansari, baina orain, herritik Errekalkora doan pista nagusian ari da lanean. Izan ere, eremu horretan, basoa ateratzen aritu dira eta makina lanean ari denez, Ansa ere hor ibiliko da.

Udal aurrekontua

Udalak aurtengo urterako aurrekontua ere onetsi du. Apirilaren 4an, behin betikoz onartua gelditu zen eta horren arabera, 216.397,00 euroko diru-sarrerak eta gastuak izanen ditu Udalak 2018an.

Inbertsioen atalean, Toki Inbertsio Planetik hartuko den diru-laguntzari esker, herritik Arola baserrira doan pistan hormigoia emanen dute. Hori izanen da Udalaren aurtengo inbertsio nagusia.

Leire Baraibar bigarren izan da Nafarroa Xtrem mendi lasterketan

TTIPI-TTAPA

Ez damakala Baraibarrekazken aldian daraman erritmoa. Azken lorpena, apirilaren 28an izan zuen Zubirin. Bederatzi ordu, 47 minutu eta 31 segundo behar izan zituen Nafarroa Xtrem proba nagusiko 68 kilometroak osatzeko eta

bigarren izan zen helmugan. Ordura arte proba horretan zegoen errekorra hobetzea lortu zuen. Ez da Leire Baraibar izan lasterketan lehiatu zen herritar bakarra, 33 kilometroko kategorian Txomin, Arkaitz, Iker, Jabi eta Imanolek ere parte hartu zuten eta.



Leire Baraibar (ezkerretik hasita bigarrena), podiumean.



35 lagun bildu ziren mahai-inguruan. UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardoa eta txakolinak dastatu dituzte Umore Onan

Txakolin hoberena aukeratzeko lehiaketa egin zuten apirilko azken larunbatean

TTIPI-TTAPA

Apirileko azken asteburuan sagardoa eta txakolina dastatu zituzten herritarrek. Ostiralean Etxeberria sagardotegian izan ziren. Heldu den urtean sagardotegian izanen dituzten sagardoak dastatzeko, taldetxo bat elkartu zen. Izan ere, Olaizola eta Etxeberria dira herriko elkartearen erabiltzen dituzten sagardoak, eta Olaizolan dagoeneko egina zuten, Etxeberriako bisita egin zuten apiril hondarrean.

Biharamunean, berriz, Txakolin Festa ospatu zuten. 35

lagun bildu ziren, mahai-inguruan giro ederra sortuz.

Honakoak izan ziren dastatu zituzten txakolinak: Bengoetxea, Bengoetxea Ekologikoa, Gaintza, Igorre, Katxina eta Ameztoti. Dastatzaileek txakolin hoberena aukeratzeko lehiaketa egin zuten. Katxina izan zen boto gehien irabazizituena. Egund elkartean izaten duten Ameztoti txakolina, berriz, bigarrena. Bien arteko aldea oso txikia izanenez, eta prezio aldetik merkeagoa denez, Ameztoti txakolina erosten segitzea erabaki dute.

Binakako pilota txapelketa azkarraren III. edizioa izanen dute maiatzaren 26an

Maiatzaren 26an, larunbatean, 16:00etatik aurrera, pilota gozokin jokatu den binakako txapelketaren III. edizioa jokatu dute herrian.

Arratsalde horretan berean hasi eta bukatuko da III. edizioko norgehiagoka. Izen-emaitea irekita dago dagoeneko

eta txapelketa hasi bitarte herriko tabernan edo elkartearen bertan apunta daiteke. Bikoteko hamar euro ordaindu beharko dituzte.

Txapelketa irabazten dutenek janari eta edariz osatutako sorta ederrak jasoko dituzte sarritzat.



UTZITAKO ARGAKIAK

Gozamena nagusi Txinoko fiestetan

Maiatzeko lehendabiziko asteburuan ospatu zuten Txinoko auzoko festa. Bertso saioa, musa, haurren krosa, sokatira, herri bazkaria... guztien gozamenerako ekitaldiak izan zituzten herrian. Papo kubatarraren musikak eta Irati eta Leireren doinuek girotu zuten herria.

Autodefentsa feminista tailerra izanen dute maiatzaren 25ean eta 26an

TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak heldu den maiatzaren 25ean eta 26an, ostiral (17:00etatik 21:00etara) eta larunbatean (09:30etik 13:30era), hamalau urtetik gorako emakumeentzat autodefentsa feminista tailerra antolatu dute. Saioa debalde eskainiko da, Goizuetako udaltxean.

Besteak beste, feminismoa, erresilientzia, ahizpatasuna, ahalduntzea, eskubideak eta ongizateari buruzko zenbait



Joan den urteko saio arrakastatsuan.

gako mahairatuko dituzte. Izena maiatzaren 20a bitarte eman ahal izanen da 948 510840 telefonora deituz edo 674 086926 zenbakira WhatsApp bat idatziz.



Herrietako bestetarako martxan jarritako protokoloa eta zerbitzuak aurkeztu zituzten maiatzaren 3an. UTZITAKO ARGAZKIA

Eraso sexisten aurkako protokoloa aurkeztu dute

Baztango Talde Feministak, bestetako antolatzaileek eta Udaleko Berdintasun Batzordeak prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Feministak, bestetako antolatzaileek eta Udaleko Berdintasun Batzordeak, bertze urte batez, eraso sexisten aurkako protokoloa jarri dute martxan. Protokoloaren helburua herriko bestetan gozamina nagusitu eta botere harremanak eta zapalkuntzak saihesteko «emakumea babestea eta babes sarea eskaintzea» da.

Botere harreman eta zapalkuntzak izan badirela ikusirik, hainbat galderez hausnartu beharra nabarmendu dute: «nork parte hartzen du anto-

lakuntzako batzordeetan? Nork hartzen ditu plazak? Nork prestatzen ditu etxe gehienetan egun berezi hauetako otorduak? Nork dantzatzen ditu mutil-dantzak plazetan lasai eta inolako irainik jaso gabe? Nor mozkortzen ahal da eta etxera lasai joan inoren konpainiarik gabe?».

Gisa bertsuan, bestetan «emakumeek parte hartzeko eskubide bera sentitu beharra» azpimarratu dute; eta eskubide hori sentitzeko bidea «besta eredua iraultzea» dela diote, «emakumeen parte-hartzea indartuz eta duen protagonis-

moa bereganatuz». Emakumeak elkartu eta autodefentsa feministari ekiteko deia ere egin dute: «biktima paper pasibotik ateratzeko tenorea da». Aurten ez dutela ez ukipenik, irainik, piropo matxistarik, mespretxurik, abusurik ez eta bortxaketarik ere onartuko jakinarazi dute.

Horrekin guziarekin akitzea «emakumeon esku» dagoela adierazi dute, 2016ko Iruñeko sanferminetan bortxatutako neskarekin gertatutakoari tar- te eginaz, «justizia patriarkal horrengatik ez dela deus esperatzen ahal» nabarmenduz.

Herrietako bestetan eskainiko diren zerbitzuak gogor- razi dituzte: salaketa eta babes publikoa (Talde Feministaren eskutik, 664964285 telefonoan); laguntza psikologiko eta juri- dikoa (Udalaren eskutik 948 580006 telefonora deituta) eta larrialdi zerbitzua (112ra dei- tuta). Azkenik indarkeria se- xistarekin akitzea denon esku dagoela gogorarazi dute.

Udaberriko kontzertua zarzuela piezekin dator

Elizondoko Recreo musika bandak maiatzaren 19an Iriar- te pilotaleku irekian udabe- rriko kontzertua eskainiko du (larunbatean 18:00etan). Aur- tongo gaia zarzuela izanen da eta gisa horretako musikaren betiko kantuen (*La verbena de la paloma*, *El caserío*, eta abar...) zati batzuk eskainiko dituzte. Kontzertu akabailan eta bandaren mantenurako diru pixka bat lortzearen, Ana Mari Marinek oparitutako margolan baten zozketa egingen dute. Egun hauetan zehar txartelak euro batean salgai izanen dituzte.

Baztango Itzulia maiatzaren 27an Gartzainen

Mende laurdena beteko du Baztango Mendi Itzuliak maiatzaren 27an eta Gartzainen hasi eta akituko da. Mendizaleek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 33 kilometrokoa eta 1.900 metroko malda duena eta 24 kilometrokoa, 1.300 metroko maldarekin. 07:00etatik 07:30era aterako dira herri- itzulia Azaldegi izanen da ibilbideko gailurrik altuena. Izena emateko bi aukera daude: internetez, maiatzaren 18a baino lehen, hamar euro ordainduta (www.baztango-mendigoizaleak.org), edo itzuliaren egunean (12 euro).



Baztango mendigoizaleak mendian.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Ardi ilea biltzeko doako zerbitzua eskainiko du Udalak

Artzainen datuak maiatzaren 18ko 14:00 arte bilduko dituzte Balleko Etxean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, bertze urte batez, ardi ilea biltzeko doako zerbitzua jarriko du. Biltzea gune zehatzetan egingen da eta ardi ilea bertaratzea artzainen esku utziko dute. Hori horrela, biltzea egiteko guneak zehazteko helburuz, artzainen datuak biltzeko deialdia egin dute.

Datuak maiatzaren 18ko 14:00 arte bilduko dira, udal-etxean. 948 580006 telefono-ra deitu edo hondakinak@baztan.eus helbidera idatz daiteke. Bertzeak bertze, ho-

nakoak izanen dira bilduko direnak: izen-abizenak, hel-bidea, ustategi zenbakia, di-tuen ardi kopurua, ilea bildu beharrekoen zenbatekoa eta kontakturako telefono zenba-kia. Bilketa izena emandako artzainei bakarrik egingen zaie. Zerbitzua antolatua dutelarik, artzain bakoitzari artilea nora eta noiz atera jakinaraziko diete.

Era berean, Udalak, zerbitzu horretatik kanpo ardi ileak nonahi eta noiznahi uzten dutenak zigortuak izanen di-rela gogorarazi du.

Bertako produktuen merkatua Elizondoren larunbatean

Baztango artisauak eta Baz-tango Zaporeak elkarrekin antolatuta bertako produktuen merkatua egingen dute mai-atzaren 19an Elizondoko plazan, Udalaren laguntzarekin. La-runbatean 10:00etatik 14:00eta-ra plazaratuko dituzte pro-duktoak.

Musika Eskolaren ikasturte bukaerako kontzertua 26an

Baztango Udal Musika Esko-lako ikasleek ikasturte bukae-rako kontzertua eskainiko dute maiatzaren 26an, larunbat goizeko 11:30ean Elizondoko plazan. Ikasturte osoan ikasi-takoa eta barneratutakoa kan-pora atera eta plazaratzeko aukera izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

13 emakume autodefentsa tailerrean

Maiatzaren 5ean autofedentsa feminista tailerra egin zuten Baztango Talde Feministak antolatuta, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Hamahiru emazteki elkartu ziren, giro onean ibili ziren eta elkarrengandik aunitz ikasi zutela aipatu digute.



JUAN MARI ONDIKOL

Mila lagun Belateko segurtasuna eskatuz

Tuneletako lanek irauten duten bitartean Belateko errepide zaharretik nazioarteko zama garraioa debekatzea eskatzeko manifestazioa egin zuten maiatzaren 28an Elizondoren. *N121A segurtasuna. Belateko mendi gainetik nazioarteko zama garraiorik ez goiburupean, mila lagun inguru bildu ziren.*

BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas
Hospitalarias
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA

Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:

- Antsietatea - Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak - Dementziak

Mendinueta z/g
31700 Elizondo
www.hospitalariasnavarra.org

Centro con plazas concertadas con
Gobierno de Navarra

Zerbitzu berria
**PSIKIATRIA
ETA PSIKOLOGIAKO
KONTSULTA ANBULATORIOAK**
Tel. 948 452 162



Zahar Etxeko mus eta seien txapelketetako onenak, sariekin. UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar Etxeko mus eta seien txapelak banatu dituzte

Mus txapelketan Felipe Santamaria eta Jesus Etxeberria nagusitu dira eta seien txapelketan Marina Remiro

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean martxoan eta apirilean jokatu diren mus eta seien txapelketetako azken partidak jokatu zituzten maiztaren 7an. Aitzakia horrekin, berendu ederra izan zuten egoitzan eta 45 lagun elkartu ziren.

Aipatu behar da, adibidez, mus txapelketan 16 bikote izan zirela, eta bikote hauek bertako egoiliar batek eta senide edo herriko barride batek osatuak ziren, eta horren bidez, harremanak sustatzeko asmoa zuten helburu.

Sariak ere banatu zituzten. Seien txapelketan, Marina Remiro izan zen irabazle, Paco Zabalza bigarren, Felix Ugarte hirugarren eta Adelaida Ascunce laugarren.

Musean, Felipe Santamaria eta Jesus Etxeberriak irabazi zieten finalean, Txeli Arretxea eta Agustin Arretxeari. Juinito Larre eta Jesus Gaztanbide hirugarren izan ziren eta Ignacio Elizetxe eta Francisco Larunbe laugarren.

Sari berezi bat ere eman zioten musean jokatu duen emakume egoiliar bakarrari, Maite Sagastibeltzari.



NEREA MORTALENA

Apezpikuaren bisita Arraiozen

Nafarroako Apezpikuaren bisita izan zuten Arraiozen. Apirilaren 14an meza ospatu zuten eta gero herritarrek berarekin argazki batzuk ateratzeko aprobetxatu zuten. Mezara joaterik izan ez zuten herritarrei, apezpikuak beraien etxeetan egin zien bisita.



NEREA MORTALENA

Superlaguna Arraiozko ikasleekin

Apirilaren 17an, Fernando Anbustegiren eskutik Superlagunaren bisita izan zuten herriko haurrek. Arras gustora pasatu omen zuten superlagunaren kontakizunekin eta istorioekin. Agerikoa da beraien poza bidali diguten argazkian.





Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g • LEKAROZ
T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Etxeak zaharberritzea errazteko baldintzak aldatzea eskatu dio

Udalak Nafarroako Gobernuari egin dio eskaria, EH Bilduren mozioak gainerako alderdi guztien babesa jaso ondotik

TTIPI-TTAPA

Apirileko ohiko osoko bilkuran bailarako etxe zaharrak aisea- go berritzeko, Nafarroako Gobernuari bizigarritasun baldintzak arautzen dituen Foru Dekretua aldatzeko es- karia egitea onartu zuten ber- taratutakoek. EH Bilduk aur- keztutako mozioak gainerako alderdien babesa izan zuen.

Mozioan aipatzen denez Baztanen eta Nafarroako men- dialde osoan lehenagoko etxe aunitz daude, solairuko 200 metro koadro edo gehiago eduki dezaketena, baina oraingo bizimodurako fun- tzionaltasunik ez dutenak. Baztanen, adibidez, 2001eko zentsoaren arabera etxebizi- tzen %69a 1.900 urtea baino lehenagokoa da. Etxe horiek gehienak hutsik gelditzen ari dira, eta horretarako, aski da herriguneetan gertatzen ari denaz ohartzea. Horregatik, EH Bilduren erranetan etxe horiek berritzeko eta oraingo bizimodurat egokitzeko ba- liabideak paratzen ez badira herriguneak hustu eta ondare guzti hori gainbehera etorriko



Ahobatez onartu zen mozioa.

da. Mozioan heldu denez bi- zigarritasun baldintzak arau- tzen dituen Foru Dekretuak ez du mendialdeko etxe han- di eta aspaldiko horien egoe- ra kontuan hartzen eta zailta- sun handiak paratzen ditu. Horregatik, EH Bilduk foru dekretua aldatzea eta hemen- go eraikin tipologia kontua hartuko duen araua egitea proposatu du. Ekimena mo- zioaren onarpen hutsean ez gelditzeko ekimen parlamen- tarioa ere abiatuko dutela aipatu du EH Bilduk.

Apiril hasieran Udalak Eus- ko Ikaskuntzarekin etxeak zaharberritzeko gogoetaldia antolatu zuen. Mozioa orduan proposatutako ideien haritik heldu da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zigakoak San Markos basilizan

San Markos eguna ospatu zuten zigatarrek apirilaren 28an, izen bereko basilizan. Zigan San Lorenzo eliza ezaguna da. Baina hiru ermita ere badira: Pilarika ermita, Egozkun dagoena; San Andres ermita, Zigaurreko auzoan dagoena eta San Markos ermita, Auzkun dagoena.



JUAN MARI ONDIKOL

Bi erraldoi berriak aurkeztu dituzte

Sagardogileen lana irudikatzen duten bi erraldoi berrien aurkezpena egin dute maiatzaren 6an Jo ala Jo elkarteak eta Baztango Gaitariak taldeak. Emakumeak sagarra jotzeko (edo kirikoketa jotzeko) erabiltzen den pisoia du eskuetan eta gizonezkoak sagarrak biltzeko saskia.

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

HÖRMANN banatzaile ofiziala

TOLDOAK - ESTOREAK

Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiaz
babestu
toldo batekin

Almandozko bestak maiatzaren 30etik ekainaren 3ra

Aurora, Meza Nagusia, pilota partidak eta patata tortilla lehiaketa izanen dira ortzeguneko egun handian

TTIPI-TTAPA ALMANDOZ

Urtero bezala, Bestaberri egunaren inguruan besta egitarau zabala prestatu dute Almandozen.

ASTEAZKENA, MAIATZAK 30 BEZPERA

- 12:00 Txupinazoa.
- 21:00 Baztan Zopak, Andoni Mitxelenak alaituak.

ORTZEGUNA, MAIATZAK 31 HERRIAREN EGUNA

- 08:00 Aurora Bixentek alaitua.
- 12:00 Meza nagusia.
- 13:00 Luntxa frontoian.
- 17:00 Pilota partidak herriko gazteen artean.
- 21:00 Patata tortilla lehiaketa.

ORTZIRALEA, EKAINAK 1 HAURREN EGUNA

- 11:00 Haurrendako ginkana.

- 16:00 Haurrendako puzgarriak.
- 16:30 Mus txapelketa.
- 18:00 Txokolatada.
- 21:00 Herri afaria.
- 00:30 Dantzaldia OHARKA-BE taldearekin.
- 06:00 gosaria gau txoriendako.

LARUNBATA, EKAINAK 2

- 11:00 Mus txapelketako finalerdiak eta finala.
- 14:00 Zikiro jatea.
- 16:00 LOS TAJUDOS DEL NORTE mariatxiak.
- 21:00 Herriko gazteen afaria.
- 00:00 DJ Dirte.

IGANDEA, EKAINAK 3 HONDAR EGUNA

- 12:00 Meza nagusia eta jai-nartzeak.
- 17:00 Herri-kirolak.
- 18:30 sarien zozketa.
- 19:00 puzgarriak.
- 20:00 Gaixoa Ni.



51 urte beteko dituzte aurten Aurora kantatzen. UTZITAKO ARGAZKIA



Ortziralean herri afaria egingen dute. FOTO ZALDUA



UTZITAKO ARGAZKIA

Kortariko gasna saritua Idiazabalen

Maiatzaren 5 eta 6an Euskal Gaztaren Azoka ospatu zen Idiazabalen. Kortariko Bordako Infernuko gasnak bosgarren saria eskuratu zuen. Gasna sarituak txapelketa herriko baten bitartez aukeratu zituzten. Julen Arburua gasnagileak jaso zuen saria, Montse Delgado zinegotziaren eskutik.

AUTOESKOLA INDURAIN

ZIKLO MOTORE KLASEAK ELIZONDON

GIDABAIMEN GUZTIAK

AUTOESKOLA INDURAIN

Pedro Axularkoa
31700 Elizondo
T 650 519 052
T 948 580 179

ALMACO BAZTAN

Errepide nagusia ELIZONDO | T. 948 580 104 | www.almacobaztan.com

ZEMENTUZKO ETA ADREILUZKO BARBAKOETAN ADITUAK / GAMMA.ES /     

BARBAKOAK & LABEAK

- Margotu gabeko barbakoa
- Prezioak parrila barne



179€
FIR Barbakoa
erref. G BARBA060



179€
Barbakoa
KONPAKTUA/SP
erref. G BCOMP001

299€
FIRST/SP Barbakoa
erref. G BARBA010



375€
FIRST/DB Barbakoa
Apal eta guzti
erref. G BARBA020



380€
FIESTA Barbakoa
erref. G BARBA090

Edukiera handia



399€
FIRST REPISA Barbakoa
erref. G BARBA050



475€
RÚSTICA/SP Barbakoa
erref. G BARBA002

Hormigoi margotua harri natural itxura

Parrilla barne



545€
RÚSTICA/DB Barbakoa
erref. G BARBA001

Apal bikoitza

495€
CHIC Barbakoa modularra
erref. G BCOMP005

+ 225€
Apaldun modularra
erref. G BCOMP018



595€
AHO HANDIKO Barbakoa
Adreilu erregogorrek eta hormigoia
erref. G BCOMP013



Su - ahoak

Formatu handiko ahoak, paellak sukaldatzeko bikaina



745€
PAELLERO Barbakoa
Adreilu erregogorrek eta hormigoia
*Bi kolore aukeran.
Beltza/Grisa erref. G BARBA006
Gaztaina kolorekoa erref. G BARBA005



775€
SPECIAL Barbakoa
Adreilua eta hormigoia
erref. G BARBA070

Lerro zuzenak
Harri natural efektua
Tokiaren antolaketak

zure lorategia bizi-bizi...

* Penintsulako prezioak dira, BEZa barne. 2018ko abendura bitarteko edo izakinak amaitu arteko eskaintzak dira. Prezioak ez du garraio eta muntaketa-zerbitzua barne hartzen.



GAMMA

Landibartarrak espekulazioaren kontra azaldu dira

Auzoko zortzi etxeetatik seiren jabeak prentsaurrean azaldu dira, auzoaren nortasuna eta balio kulturala defendatzeko

IÑIGO IMAZ

Udal gobernua onartu berri duen Plan Municipalaren al-daketa bati esker, Landibar auzoko gunean 20 etxebizitza berri egin ahal dira. Orain arte, Landibar auzoa nekazaritza giroahobekien mantendu duen gunea izan da, batik bat kas-koan. Auzoaren gunean zortzi etxalde daude gaur egun. Ia denak XVII. mendean eraikiak.

Auzoan biztanlegoa ez da hazi, bertan bizi diren familiek ez dute etxe berririk behar eta gaur egun arte indarrean dagoen 1999ko planak aukera ematen du gauregungo etxeak zatitu eta etxebizitza berriak sortzeko bertan. Leorlas auzoarekin batera, Landibar Urdazubiko auzo historikoe-na da, XIV. mendetik aintzina aipatua izan da, nekazaritza eta abeltzantzara loturik beti.

Prentsaurreko bat eman zuten auzoko zortzi etxeetatik seiren jabeak direnak, auzoaren nortasuna eta balio kul-tural, ekologiko zein naturala defendatzeko. Aipaturiko Udal Plana onartzeko auzotarren iritzia eta beharrak ez direla

kontuan hartu eta, Nafarroa-ko Gobernuaren aurrean ele-gitea aurkeztu dutela iragarri zuten. Izan ere, prentsaurre-koan bildutako en artean, Pla-nak urbanizagarri bihurtu nahi dituen lurren %75a biltzen dute. Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain, lurjabe horietako bati lur permuta bat ezarri nahi zaio, bertz bati UE1 guneko garapena bultza-tzeko osatu berri den Konpen-tsazio Batzarrean parte har-tzera behartuko zaiolarik.

Haiekin batera Urdazubi Elgarrekin taldeko Anastasia Bidart zinegotzia mintzatu zen. Bidarten erranetan, Ur-dazubik historikoki izan duen garapenak espekulazioa mer-kataritza gunera mugatu izan du, bereziki Dantxarinea eta Landibar behekaldean. Haatik, proiektu berri honekin, Uda-lak espekulazioa auzo guztie-tara zabaltzeko atea irekiko duela uste du. Udal gobernu-aren proposamen honekin, azken urteotan pairatu dugun krisi ekonomikoaren oinarrian dagoen eredu zabaltzeko nahi da Urdazubin.



IÑIGO IMAZ

Azkenak baina kontent Herri Aitadan

Aurten lehen aldiz Saran ospatu den Herri Aitadan Urdazubi azkena izan bada ere, herriko hainbat gazte antolatu ziren frogetan parte hartu zuten, jai giroan eta lagun artean. Egun osoz aritu ondoren, afaria eta dantzaldia izan zituzten. Biharamunean bestondoa izan zen nagusi.



IÑIGO IMAZ

La Manadaren epaiaren kontrako bilkura

La Manada bezala ezagutu direnen auzia dela eta, Iruñeko Auzitegiaren epaia ezagutzearekin batera, herrian elkarrateratzea deitu zen erabakiaren aurka. Deialdia presazkoa izan zen eta sare sozialen nahiz Whatsapp bitartez egin zen, baina halere herritar aunitz agertu ziren.

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804 • anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus



Teletxeko Julia Barberena, ogia egiten. UTZITAKO ARGAZKIA

Julia Barberena okina liburu batean protagonista

Telletxean sortu eta gaur egun Orozkon bizi den emakumea *Pan de pueblo* liburuan ageri da

JOSEBIÑE ETA KORO

Etxenikeako Pantxok ogia egi-teaz utzi zuenetik, kanpotik ekartzen dute herrian jaten den eguneroko ogia. Hala ere, gure herrietako xaharrenek badakite ongi aski nola egiten den ogia, ttikitatik etxean ikusi izan zutelako eta aunitzek etxean ere egiten zuten.

Horietako bat Teletxeko Julia dugu. Gaur egun Orozkon bizi da, eta famatua egin den ogia egiten du. Hori dela eta, berriki argitaratu den *Pan de pueblo* liburuan ageri zaigu herritarra.

Liburu horretan Saldias eta Baztango ogia ere aipatzen da.



UTZITAKO ARGAKIAK

Giro bikaina Sarako Herri Aitadan

Maiatzaren 5ean Saran egin zen Herri Aitadak sekulako arrakasta izan zuen. Herriko ekipa bortzgarren gelditu zen, baina taldekideek ongi pasatu zutela, eta eguneko umore puntua eman zutela, ozenki erran behar da (batez ere Larrain dantza eskeini zutenean).



UTZITAKO ARGAZKIA

'Libertimendua' Iparraldetik

Gan den hilabetea Zugarramurdin ospatu zen Libertimendua ekitaldia, Bertsozale Elkartearen eskutik, eta bertan Iparraldeko 50 ikaslek parte hartu zuten. Graxianan hartu zuten aterpe eta igande arratsaldean plazan eskaini zuten emanaldia prestatzen eman zuten aste hondarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

La Manadaren epaiaren aurka

Iruñeko San Ferminetako La Manada auziaren sententzia dela eta, Zugarramurdin ere horri buruzko kexa erakutsi zuten herritarrek Herriko Etxeko atean, epaiaren berri eman zuten egunean. Alde guztietan bezala, gurean ere harridura eta ezinegona sortu du auzitegiaren erabakiak.

Usopop Festibala maiatzaren 26an eta 27an egingen dute

Larunbateko kontzertuak Lizarietako lepoan eskainiko dituzte eta igandekoak Santa Katalina kaperan

TTIPI-TTAPA

Lagunarteko ekimen bat izateko asmoz sortu zen jaialdia, dagoeneko maiatzeko azken asteburuko hitzordu finkoa bilakatu da. Hala, aurten bederatzigarren aldiz, maiatzaren 26an eta 27an Usopop Festibala egingen da.

Bi zifrako adinera pasatzeko bezperan, aurtengo festibalak aldaketa ttipi batzuk izanen ditu, eta bederatziz urteotan garrantzi berezia ukan duten bilekutan iraganen da Usopop: Lizarietako lepoan eta Santa Katalina kaperan.

Larunbatean Lizarietan

Festibaleko lehendabiziko eguna Lizarietako lepoan izanen da, larunbatean, maiatzak 26. 16:30ean irekiko dituzte ateak eta hainbat talde ariko dira taula gainean: Frustration

talde kultoa, Willis Drummond rock taldea rock indartsua, DBFC ren erritmo dantzagariak, Lumi bikotearen doinu onirikoak, François eta 4 laminek magia, Bilaka konpainiaren *Soka* azken dantza ikusgarria eta Coconut diska jartzaileak.

Igandean Santa Katalinan

Igandeko emanaldiak 14:30ean hasiko dira eta Santa Katalina kaperan iraganen dira. Coconut DJaz gain, Gratuit taldea ere ariko da, baita Orbel lau-kote gaztea ere. Kataluniatik Maria Arnal i Marcel Bages artistak ere etorriko dira.

Antolatzaileen arabera, bi egunetarako balio duten sarteak agortu dira, baina egunka balio dutenak oraindik eskuragarri dira. www.usopop.comen eros daitezke.

Ikastolaren bestarako txartelak salgai

Igande honetan, maiatzak 20, Olhain Ikastolaren besta iraganen da kiroldegian. Urtero egiten duten sagarnotegiko bazkariaren bueltan, egun osoko besta antolatu dute eta bazkarira joan nahi duten txartelak Herriko Etxeko Edantegian erosten ahaliko dituzte. Helduenak 23 eurotan eta haurrenak 6 eurotan daude. Txartelen atxikitzeak, berriz, 06 60916863 telefonora deitu behar da. Bertzalde, eguerdian, basoa hiru euro ordainduta, kupeleko sagarinoa nahi adina edateko aukera izanen da.

Ttipi-Ttapa hartzeko eskaintza ikastolako burasoenzat

Euskarazko prentsa Sarako etxeetara zabaltzeko xedez, TTIPI-TTAPAK gomita zabaldu die ikastolako burasoei. Kazeta etxean hartuz, burasoei ez ezik, etxeko gazteenek ere izanen dituzte intereseko gauzak: Sara eta auzo herrietako berriak, haurrentzat den *Plazan Bazan* txokoa... Ekainetik abendurako abonamenduak 40 euro balio du eta interesatuek datuak info@ttipi.eus-era edo Whatsappez (0034) 744 484361 igorri behar dituzte. Harpidedun berriek Ttipi Txartela hartuko dute opari.



GANEX

Giro ederra Herri Aitadan

Eguraldia lagun, aski ongi iragan zen maiatzaren 5eko Herri Aitada. Probetan parte hartu zuten sei herrietako herritarrez gainera, jende alde ederra bildu zen jokoen ikustera, bereziki arratsaldean. Puntuazio guztiak bilduta, Sara izan zen lehenbiziko eta arratsean 479 afaltiar elkartu ziren.



GANEX

Zangoak Arin taldeak Thibault ohoratu du

Zangoak Arin taldeak Guy Thibault elkarteko kidea ohoratu zuen apirilaren 28an Lur Berri gelan. 80 urte bete dituela ospatu zuten eta bide batez, elkartean egindako lana eskertu nahi izan zioten, aiantzi gabe gimnastika erakusten eta pilota elkartean diruzain gisa egindako urteak.



Lehenbiziko informazio bilkuran senpertar andana bildu zen. UTZITAKO ARARGAZKIA

Euskaraldia abian jartzeko bigarren bilkura egin dute

Eskuaraz gehiago mintzatzeko kanpainia da Euskaraldia, eta plantan ezartzeko herritar zonbeitek indarra egiten dute

PIERRE BASTRES

Joan den urtean, azterketa handi bat egin zuten eskuararen erabilpena hobekiago ezagutzeko, Eskual Herriosoan. Ondorioz, azterketa hauen egileek argi eta garbi daukate usaia batzuk aldatzekoak direla gure mintzairaren baliapena handitzeko, helduen artea oroz gainetik. Hortik sortu da Euskaraldia. Helburu nagusia eskuara mintzatzeko tartea edo guneak sortzea eta bereskuratzea da. Hori erdies-teko, gakoak lehenik herri bakoitzean gogo-oneko herri-tarrak biltzea, eta horiek berek lana egitea dira, bertako beharren eta ahalen arabera.

Amets Lahetjuzan: «Lehenbiziko informazio bilkuran senpertar andana ginen»

Amets Lahetjuzan bertze batzuekin ari da antolatzen lanetan, martxoaz geroztik hazilaren arte: «Euskaraldiak aritzeko nahikaria piztu da. Uda-Lekun lan egiten dut, eta erakunde hau partzuer bat da Eskual Konfederazioaren baitan. Honenbertzez horren

berri aditua nuen. Lehenbiziko informazio bilkuran Senpertar andana ginen, eta gure herrian lanetan hastea erabaki izan dugu».

Bigarren bilkura maiatzaren 4an iragan da

Maiatzaren 4an, berriz, bigarren bilkura iragan da Tedo Kafe ostatuan, eta Lahetjuzanek aipatu digunez, «hamabi bat ginen, zeinetan bi hautes-tsi baitziren. Gure mezua hau-xe da: ageri da aspaldiko usaie-ri atxiki gatzazkola eskuaraz mintzatzerakoan. Batzuekin beti erdaraz mintzatzen gara eskualdunak izanagatik ere, toki zonbeitetan lehen eta azken hitzak berdin, erdaraz baizik. Herritarrei hortaz behar diotegu ohartarazi, eta gero joeraz aldatzen entseiatu».

Hori gauzatzeko, «alde ba-tetik bertako inztituzioen ber-

mea behar dugu gure gibeletik, informazioa zabaltzeko eta sinesgarritasuna emateko ere bai. Halaber, komertsan-teek ere egin behar handi bat badukete. Bertzaldetik ora nola egingen dugun jendeak lotzeko gure xedeari: eskuara dakitenek beren izena aitzinetik emaiten ahalko dute *Aho Bizia* aritzeko gisan, eskuara pittat edo ongi ulertzen dutenak *Belarri Prest* izanzen dire-larik».

Aho Bizia eta Belarri Prest, hazilaren 11n hasita hameka egunez

Hazilaren 11n kanpaina hasita hameka egunentzat, bakoitzak seinale tiki bat agertuko du papoan, zoin multxotan den jakinaratzeko. *Aho Bizia* denak bere hitza emanen du eskuaraz mintzatzeko *Belarri Prest* denarekin, elgar aditzeko mugetan noski. Ametsek gehitzen duen bezala, «Eskuarak beti hartzen du gure arta, ez bakarrik egun berezi batzuetan. Baina parada ona da jendeari ohararaztea eta gogoetatzea. Izan ere Senpereko Hirur Besta Komiteekin hitz hartu dugu hori bezalatsuko egitea ere uda honetan».

Herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua. Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkarte urteetan zehar landu duten Euskarak 365 egun lan ildoaren baitan kokatzen da eta bi mugarri ditu, horietako bat 11 egunez euskaraz egitea.



Haritz Garate, eskuinean. AMANDARRI TT

Haritz Garate lekeitiarrak irabazi du Senpereko Triatloia

PIERRE BASTRES

Bi egunez iragan dira triatloiko probak, maiatzaren 5ean eta 6an: larunbatean taldekoak eta distantzia ttikikoak, igandeko arratsaldean txapelketa nagusia egin dutelarik distantzia olinpikoan.

Senpertar zonbaitek parte hartu dute, eta horietarik Jérôme Bergararen erranetan, «izigarri ibilbide goiti-behe-titsukoa zuan, eta berotasu-nagatik ainitzek sofritu ditek, hoberenen artean ere bai. Azken hondar-indarrak bildu izan behar ditiagu helmuga ikusteko!».

Eskualdunak jaun eta jabe izan dira Senperen, podiumak erakusten duen bezala. 400 kirolari baino gehiago aritu dira eta denen buru, Lekeitio-ko Amandarri Triatloi Taldeko Haritz Garate gailendu da, ibilbidea egiteko bi oren baino gutiago behar izan dituen bakarra.

SENPEREKO TRIATLOIA

SAILKAPENAK	
1. Haritz GARATE	01:58:25
2. Beñat ARNAIZ	02:01:14
3. Gorka BIZKARRA	02:01:41
4. Adur ESKISABEL	02:03:51
5. Zorion KAREAGA	02:04:11
LEHEN EMAKUMEA	
62. Manuela LEROUELLE	02:25:53



Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko eta Herri Kirol Federazioko ordezkariak, Sunbillako egoitzan. AITOR AROTZENA

Herri kirolak sustatzeko programa aurkeztu dute

Nafarroako Kirolaren eta Gaztediaren Institutuak eta Herri Kirol Federazioak lau lan-ildo landuko dituzte

AITOR AROTZENA SUNBILLA

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak, Nafarroako Herri Kirol Federazioarekin elkarlanean, herri-kirolak, bertako kulturaren zati direnak, sustatzeko programa aurkeztu dute maiatzaren 4an Sunbillan, Federazioaren egoitzan. Ruben Goñi eta Primitivo Sanchez, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendari eta zuzendari ordea; Xabier Urrutia, Nafarroako Herri Kirol Federazioko presidentea; Imanol eta Peio Kañamares kirolariak; eta Maider Goñi, Federazioko langilea izan dira aurkezpenean. Lau lan-ildo ditu programak.

Herri-kirolak ezagutu

Lan ildo honek herri-kirolen praktika ezagutarazi eta sustatu nahi du eskoletan eta

ikastoletan, gure kulturaren zati garrantzitsuak diren neurrian. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako umeei zuzendua da, 10-14 urte bitartean, herri-kirolak guttien ezagutzen diren eremuetan eta ikastetxeetan. Lehenengo fasean bortz ikastetxetan egingen dira jarduerak. Nafarroako herri-kirol jolasetan parte hartzeko taldeak sortzea da helburua. Herri-kirol materiala prestatuko da adin hauendako egokitua. Sei material sorta prestatuko dira: koxkorrak, txingak, sokatira eta zakuak. Material hori ikastetxeei

GURE KULTURAREN ZATI DIRENEZ EZAGUTZERA EMAN NAHI DITUZTE

utzikoa zaie. Irakasleendako Unitate Didaktikoa prestatuko da. Monitore prestatuak izanen dira azalpenak emateko ikastetxetan (erakustaldiak egingen dira).

Kirolariei laguntza

Miguel Indurain Fundazioaren programaren baitan diru-laguntza emanen zaie herri-kirolen kirolariei. Horretarako hitzarmena sinatuko dute Nafarroako herri-kirol jolasetan eta Miguel Indurain Fundazioak. Kirol emaitzak kontuan hartuko dira eta goi mailako kirolarien definizioaren irizpideak berrikusi egingen dira.

Tokiko erakundeei eta kirol taldeei laguntza

Herri-kirolak bultzatzen dituzten jarduerak bultzatu nahi dira. Horretarako, kirol deialdietan diskriminazio irizpide positiboak azalduko dira herri-kirol jarduerendako bai kirol entitate eta tokiko entitaten dako.

Ezagutzera eman

Azkenik, herri-kirolen kirolariak ezagutzera eman nahi dira eta erreferente bihurtu gizartearendako eta bereziki gazteendako.



Hiru lehenbizikoak, Beran. UTZITAKOA

Urko Gorritik irabazi du Berako Felix Errandonea 41. Memoriala

TTIPI-TTAPA BERA

Maiatzaren 5ean jokatu zen Beran Felix Errandonearen omenez 41. aldiz antolatutako txirrindularitza saria, junior mailako txirrindulariei zuzenduta Gure Txokoak antolatua. 53 txirrindularik lortu zuten 78 kilometroko ibilbidea osatzea eta horien artean Intersport Irabia taldeko Urko Gorriti izan zen bizkorrena sprintean. Irabazleak ordubete, 43 minutu eta 33 segundo behar izan zituen eta denbora eman zion ia tropel osoari. Joseba Lopez (Ford-Garaje Moderno) izan zen bigarrena eta Mikel Retegi (Lizarte-Ermitagaña) hirugarren. Beraz, banazbertze orduko 45,2 kilometroko abiaduran ibili ziren txirrindulariak.

F. ERRANDONEA MEM.

SAILKAPENAK

1. Urko GORRITI (Intersport) **01:43:33**
2. Joseba LOPEZ (Ford-G.M.) **d.b.**
3. Mikel RETEGI (Lizarte) **d.b.**
4. Josu ETXEBERRIA (Intersport) **d.b.**
5. Fares TELAILIA (C.Galdeano) **d.b.**

TARTEKO HELMUGAK

1. Diego URIARTE (Lizarte) **6 p.**
2. Jesus Angel CASADO (Turiaso) **4 p.**
3. Ivan CERVIÑO (Intersport) **3 p.**

TALDEKAKO SAILKAPENA

1. Intersport Irabia **05:10:39**



Ibilbidea ezagutzeko gelditu ziren Iruritan apirilaren 4an. UTZITAKO ARGAZKIA

Mendi duatloia antolatu dute lehen aldiz Iruritan

Maiatzaren 26ko proban, 21 kilometro mendi bizikletan eta 10 kilometro lasterka egin behar dira, banaka edo binaka

TTIPI-TTAPA IRURITA

Iruritako herriak, Iruritako Mendi Duatloia antolatu du lehen aldiz maiatzaren 26rako, Iruritako Gazteen eta Baztango Udalaren babesarekin. Lasterketa herrikoia izanen da, maila guztietako kirolariendako pentsatuta dagoena. 21 kilometro mendi bizikletan (850 metroko desnibela) eta 10 kilometro lasterka (600 metroko desnibelarekin) egin beharko dituzte kirolariek. Bakarka, binaka txandaka (mutilak, neskak eta mistoa) edo bizikleta elektrikoarekin egiteko aukera ere bada. Azken kasu honetan ibilbide osoa egin beharko dute bizikletan. «Gero eta gehiago ikusten dira eta aukera denei zabaltzen nahi diegu», aipatu dute antolatzaileek.

Herritik abiatuta, inguruko mendietan barna ibiliko dira korrikalari eta txirrindulariak. «Baztango bailaran eta inguruan mendiak eta kirolak gaur egun duten arrakastak bultzatuta herriko gazte batzuk animatu gara kirol jardueratik hiru hiru aldiz ateratzera. Noski, ezinezkoa izanen litza-

teke hau gainontzeko hainbat eta hainbat herritarren laguntzarik gabe. Herriko enpresa eta komertzioen babesa ere izan dute», aipatu digu Gorka Urtasunek, antolatzaileen izenean.

Ibilbidea ezagutzera emateko, apirilaren 4an ateraldia ere antolatu zuten eta parte hartu zutenek aski gustora gelditu ziren ikusitakoarekin: «Edonork egiteko moduko ibilbidea da, aski polita!», zioten.

Egun osoko egitaraua

Proba goizean goiz hasiko dela baliatuz, egun osoko egitaraua antolatu dute Iruritan. Eguerdian paellada izanen da parte-hartzaileentzat eta nahi duen guztiarentzat. Arratsaldean haurrendako duatloia izanen dute eta 17:00etan laxoa txapelketako partida.

PROBA BIZIKLETA ELEKTRIKOAN EGITEKO AUKERA ERE BADA

Bi ibilbide izanen ditu aukeran larunbatean V. Goizutrail lasterketak

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Aurten ere bi ibilbide izanen ditu aukeran Goizutrail mendiko lasterketaren bosgarren edizioak maiatzaren 19an, bata 10,6 kilometrokoa (631 metroko desnibela) eta bestea 25,2 kilometrokoa (1.636 metroko desnibela).

Herriko plazan hasiko dira bi ibilbideak 09:00etan, Aita-semegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik, 680 metrotara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jautsiko dira Espideko sorotik pasatuz, ibilbide laburrekoak.

25,2 kilometroko ibilbidea aukeratzen dutenek, ordea, Alkainzuriain auzotik Mandoegiko gailurrera igo beharko dute, 1.045 metrora. Ondoren Mandoegiko gailurretik jarraituko du ibilbideak eta



Korrikalaria Mandoegi inguruan, iaz.

bukatzeko berriz ere plazara jautsiko da. Izen ematea www.herrikrosa.eus webgunean bezpera arte eta egunean berean plazan ere egin daiteke. Aurretik izena ematen dutenek, ibilbide luzerako 20 euro ordaindu beharko dute (15 euro herritarrek) eta 15 euro laburrerako (10 euro herritarrek). Egunean berean, 25 euro luzerako (20 euro herritarrek) eta 20 euro laburrerako (15 euro herritarrek).

Igandean egingen dute Urdazubiko Kontrabandisten VII. lasterketa

TTIPI-TTAPA URDAZUBI

Azkeneko urteetan, Urdazubiko Salvatore besten aitzineko igandean egin izan dute Kontrabandisten lasterketa, baina aurten, ohitura aldatu eta bestak pasatu ondoko igandean, maiatzaren 20an egingen dute. Lasterketa igande 10:00etan hasiko da eta dortsalen banaketa egunean berean, 08:45etik aitzinera herriko plazan.

Plazatik abiatuta 15,83 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak, 656 metroko desnibelarekin, tartean Azkar eta Elorga lepoak igoz. Zehazki, plazatik abiatu eta plazan helmugaratuko dira korrikalariak eta tartean Gurutze bidexkara, Elizondokoborda, Azkar lepo, Zabittiki, Gurutze Mitxelenborda, Axularrenea, Iribereko iturria,



Irteeran zakuak garraiatuko dituzte.

tarteko helmuga, ur depositoa, Elorgalepo, Atolepo, Indaburukoborda, Gainekola zubia, Bizubiak eta presa pasatuko dituzte. Ohi bezala, lasterketa hasierako eta bukaerako metroak zakua bizkar gainean dutela egin beharko dituzte korrikalariak.

Sariei dagokienez, 250, 150 eta 50 euro izanen dira hiru lehen sailkatuentzat, gizonetako nahiz emakumezkoentzat eta opariak ere izanen dira.

MAIATZAK 17 - 31

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LEITZA

Ekialdeko emigrazioa aztergai

Atekabeltzen, maiatzaren 18an, 18:30ean.

Han hemenka Siriako errefuxiatuen egoera

Atekabeltzen, maiatzaren 24an, 19:30ean.

Euskal kultura tradizionalaren oinordekotza

Atekabeltzen, maiatzaren 25ean, 18:30ean.

LITERATURA

LEITZA

Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako ipuin kontaketa

Liburutegian, maiatzaren 17an, 17:30ean.

Poesia errezitala

Liburutegian, maiatzaren 22an, 19:00etan.

Gurean dokumentala

Atekabeltzen, maiatzaren 23an, 18:30ean.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

Suakai taldearen Raices ikuskizuna

Harriondoan, maiatzaren 19an, 19:30ean (sarrera 8 euro).

LEITZA

Miru eta Xurdin musikala

Zineman, maiatzaren 20an, 17:00etan.

BERA

La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió

Kultur Etxean, maiatzaren 20an,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ARESO Haur, guraso eta irakasleen topaketa

Jokoak, tailerrak, bazkaria, kalejira... izango dituzte. Apirilaren 26an, larunbatean.

19:00etan (sarrera 4€).

TAILERRAK

GOIZUETA

Autodefentsa feminista tailerra

Udaletxean, maiatzaren 25ean (17:00etatik 21:00etara) eta 26an (09:30etik 13:30era).

ELIZONDO

Txorimaloen tailerra

Sei urtetik goitikoendako. Plazan, maiatzaren 19an. 10:30etik 13:30era.

AZOKAK

SARA

Bertako ekoizleen merkatua

Apiriletik irailera bitarte, ortziraletan, 16:30etik 20:30era.

ELIZONDO

Bertako produktuen azoka

Maiatzaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

LEITZA

40. Eskulangintza Azoka

Maiatzaren 27an, plazan.

KIROLA

ELGORRIAGA

Mendi Itzulua

Maiatzaren 20an, 08:00etan.

ARANTZA

Arantzako Mendi Itzulua

Ekaitza Elkartearen eskutik. Maiatzaren 20an, 07:00etan.

IGANTZI

Biltoki Elkartearen Mendizaleen Eguna

Izpegin barna Iparlara. Maiatzaren 26an.

LEITZA

Mendi-irteera, Bardeetara

Maiatzaren 26an, 07:00etan abiatuta.

GARTZAIN

Baztango XXV. itzulua

Maiatzaren 27an, 07:00etan.

OSPAKIZUNAK

URDAZUBI

Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 18an, 12:00etan.

LEITZA

Kirol Eguna

Kiroldegian, maiatzaren 19an.

AMAIUR

Kantu afaria

Gaztelu Elkartean, maiatzaren 19an.

SARA

Ikastolen besta

Maiatzaren 20an, 11:00etatik aitzinera.

ARESO

Haur, guraso eta irakasleen topaketa

Maiatzaren 26an.

SUNBILLA

Malerreka Eguna

Maiatzaren 26an.

ITUREN

Trinitate Eguna

Maiatzaren 27an.

LESAKA

Beti-Gazte Elkartearen Eguna

Ekainaren 2an.

NARBARTE

Sagardo Eguna

Ekainaren 2an.

SARA

Xareta Eguna

Ekainaren 3an.

KONTZERTUAK

LESAKA

Zeharkako txirula kontzertua

Musika Eskolako ikasleak. Udaletxeko Batzar Aretoan, maiatzaren 18an, 17:30ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

ARANTZA Mendi Itzulia

Ekaitza Elkartek antolatutako itzulia.
Maiatzaren 20an, Igandean.

ELIZONDO**Bandaren kontzertua**

Braulio Iriarte pilotalekuan,
maiatzaren 19an, 18:00etan.

**Baztango Udal Musika
Eskolako ikasleen kontzertua**

Plazan, maiatzaren 26an,
11:30ean.

BERA**Mugaz gain jaialdia**

Lehen Hezkuntzako ikasleak.
Kultur Etxean, maiatzaren 17an
eta 18an.

Ganbera aldea

Isidro Fagoaga Udal Musika
Eskolako ikasleen eskutik.
Musika eskolan, maiatzaren
21ean, 17:30ean.

Bera kantari

Illeketako zubian, maiatzaren
26an, 19:00etan.

SARA**UsoPOP festibala**

Maiatzaren 26an (16:00etan
hasita) eta maiatzaren 27an

(14:30etik aitzinera).

LEITZA**Kantu emanaldia**

Torrean, ekainaren 3an,
22:30ean.

**Organo eta tronpeta
Kontzertua**

Elizan, ekainaren 3an,
19:00etan.

ERAKUSKETAK**LEITZA****Santi Larraren margolanak**

Kultur Aroaren harira.
Peritzan, maiatzaren 4tik
aurrera.

**Errefuxiatuen inguruko
argazkiak**

Atekabeltzen, maiatzaren 18tik
26ra bitarte.


**Amaia Iparragirreraren
argazkiak**

Atekabeltzen, maiatzaren 27an,
egun osoan.

Nire aukera**«Musika bakardade
momentuetarako
sendabidea izan da»**

AINARA CELAYETA SUNBILLAKO GAZTEA

«Hogei urteko sunbilar musikazalea» da Ainara Celayeta. Irakurtzea eta «abestea, konposatzea...» du gustuko. *Tapatara-tapatara*, pandereta esku artean zuela, hasi zuen musikarekiko hartu-eman. Sei edo zazpi urte ingururekin, berriz, «solfeo eta pianoa uztartu nituen». Areago, duela bizpahiru urte gitarra astintzeari ekin zion. Instrumentu horiek eta, oro har, musikak



UTZITAKO ARGAZKIA

egunerokoan duen garrantzia «musikal bati esker antzeman nuen». Ordutik bizipen gogorre aitzin hartzeko, «bakardadean eta galduta sentitu naizen momentuetarako ezinbertzeko sendabidea» izan da. Letrak itzuliz, mezua arakatuz, sentituz eta bere nortasunaren zertzeladak atxikiz, etxean «coverrak sortzen eta sormen lanak egiten hasi nintzen». Sunbillatik Burgosera ikastera

joan zenean, kantu saioak jasotzen hastearekin batera, «irakasleak eta mikro-irekiaren bueltan eginiko laguntaldeak sustengu handia eskaini zidaten». Zehazki, «irakasleak, beharrezko segurtasuna lor nezan, bere estudioan lehendabiziko grabaketa bat egiteko animatu ninduen». Hein handi batean horri esker, «aspaldian buruan nuen Youtube kanala ireki nuen». Lehendabiziko bideoa zintzilikatu orduko 1.600 bisitaldi izan ditu «inondik inora espero ez nituenak». Aitzinera begiratzeko indarra eman dio horrek, «abesten eta musika sortzen segitzekoa». Oraingoz «ahotsean zentratuta, teknikak ikasten eta lantzen» ari da, baina pixkan-pixkan «sormen lanak plazaratzen» ikusten du bere burua. Bien bitartean, etorkizun laburrean, «talde bateko musikari izatea gustatuko litzaidake, bertze batzuekin esperientzia hori partekatu nahi nuke. Beraz, ideia bertsuekin dabilen norbait izanez gero, nirekin harremanetan jartzeko deia luzatu nahi nioke, ainara13musica@gmail.com helbidera idatziz». Berak duen guztia emanez eta besteengandik ahal bezainbertze xurgatuz, amets handietako bat oholatza gainetik «Sunbillako plaza jendez gainezka ikustea da».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

LESAKA. Azkaine karrikan, 7. zk. pisua eta bajera salgai, 1go solairuan. 95m² ditu pisuak eta azpian duen bajeak 44m². ☎ 685 778757 (Miguel).

ERRENTAN EMATEKO



ETXALAR. Herrian bertan dagoen etxea errentan emateko. Hiru logela, bi bainugela, egongela tximinia-ekin eta sukaldea. Berogailuak egurrekin berotzen dira. 40m²ko garajea. 2.000 metroko lursaila. ☎653 298856.



HENDAIA. Kanpin batean eta hondartzatik hurbil dagoen *mobil-home* -a asteburuetarako edo oporraldietarako errentan emateko. ☎ 667 308826.

LESAKA. Apartamentua errentan emateko. Irailek ekinera, bi irakaslerentzako. Bi logela, bakoitza bere komunarekin. ☎ 948 637862 / 678 855056.

ALMUÑECAR hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko ekaineko 1. hamabortzaldian eta irailean. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire ego-kituarekin. ☎ 658 943702.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko lagun baten bila. ☎ 678 076665.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

LESAKA. Iturrizubiko plazako 1. behean, 63 m²ko bajera salgai. ☎680 294158.

ERRENTAN EMAN



LESAKA. Haizea Kafetegia errentan emateko, Plaza Zaharrean. Kokale-

ku proposa, 110m² eta zuzenean lanean hasteko prestatuta dagoen lokala da. ☎ 636 393159.

LESAKA. Iturrizubiko plazako 9. eta 10. zenbakian, ile-apaindegi bezala egokitua dagoen 70 m²ko lokala errentan emateko. ☎ 661 081273 / 948 637703.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTU

Belar-soraa errentan hartu nahi dute, haundia eta bordarekin bada, hobe. Urarekin eta bueltan alabrez itxita dagoena. Behiak edukitzeko. ☎658 015080.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ELIZONDO. Gorramendi kalean (Merkatuzelai urbanizazioa), eraikitze

530 m²ko lursaila salgai. ☎ 600 386897.

LANA

ESKAITZAK

ELIZONDO. Fabrika batean elektromekanikoa behar dute, mantentze-lanetan aritzeko. Bidali curriculum: 8. posta kutxa, 31700 Elizondo

BERA. Asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 948 630392.

IRUN. Ostatu batean, barran lanean aritzeko bi lagun behar dituzte. ☎ 629 210948.

ERRATZU. Landetxe batean 25 lagunendako bazkaria eta afaria prestatzeko bi langile behar dituzte. Ekaineko azken astean hasi eta sei aste-rako. ☎ 660 731901.

BERA. Churrit Hotelean (Lenkonea jatetxea) egun osoan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 948 625540 / 699 431871.

BERA. Churrit Hotelean lan egiteko hoteleko harreragilea behar dute. ☎948 625540, 699 431871.

AMAIUR. Amaiurko erroten langilea behar dute ostalaritzan lan egiteko, asteburuetan eta udan. ☎619 955709 / 660 731871.

ESKARIAK

Garbiketa lanetan, adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan aritzeko lan bila. Alor horietan esperientzia duen emakumea. ☎644 778212.

Lanik gabe dagoen mutil gaztea lan bila. Mantentze-lanetan, eraikuntzan, masajista bezala, adinekoak zaintzen edota baserrietan ganaduarekin lan egiteko prest. ☎ 685 034482.

Ostalaritzan, adinekoak zaintzen edota garbiketan aritzeko, mutila lan bila. ☎ 631 544481.

Adinekoak zaintzeko interna edo orduka, haurrak zaintzeko edota garbiketa lanetarako emakumezkoa lan bila. ☎ 612 533757.

Emakumezkoa adinekoak zaintzeko lan bila. Interna bezala adinekoak zaintzen esperientziaduna. Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta sukaldaritza hainbat ikastaro eginak. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 619 386414 / 698 630415.

Lanean esperientzia duen neska lan bila, adinekoak interna bezala edo orduka zaintzeko, haurrak zaintzeko edota garbiketa lanetarako (portalak, etxeak...). ☎ 664 149530.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun inguruak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 57 €

Zerri gizona 1,156 €

Zerramak 0,570€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (apirilaren 27tik maiatzaren 4ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BERA. Neska batek, uda honetan klase partikularrak emanen lituzke: ingelesarekin nahiz bertze arlo batzuekin laguntzeko prest dago. ☎ 678 968495.

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

SALGAI

3 urteko **ahari mutur gorria** salgai,
adarrak gabea. ☎ 606 019337.

DENETARIK

SALEROSKETAK

Logela mexikarra osorik edo altzariak banaka salgai. Apalak: 190x90x35cm; mesanotxea: 59x40x40; ohatzea: 105x200cm (denak kajoiekin). Koltxoi eta almoha-



da biskolastikoak (Garantia barne).
☎ 661 767398.



Pianoa salgai. 800 € ☎ 656 752736.



Erabili gabeko **ohe artikulatua** salgai. Gora eta behera ibiltzeko orgarekin, jaitxi eta igo egiten diren

langak bi aldeetatik. Koltxoia barne,
1.100 euro. ☎ 630 160353.

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 · BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK
RENAULT
Estreintatu gabea
13.100€
CAPTUR LIFE 1.5 DCI 90 CV
Abiadura-erregulagailu / mugagailu, aire girotua
Estreintatu gabea
18.950€
KADJAR TECH ROAD 1.5 DCI 110 CV
Klimatiz., apark. radarra, abiadura erreg./mug.
Biak sustapen finantzieroei lotuak
DONEZTEBE · T. 948 450 282 · doneztebe@red.renault.es

Altzairuzko sei fregadera salgai,
1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
800€
800€
1.200€
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!

ALMACO BAZTAN GANTIA %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu denda T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com	ARGIBEL PTIKA ESKAINNTZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	Beatriz Luzerri de Txarretan %5 %5 DESKONTUA kosmetika eta osagarrietan DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduekin Santiago, 53 ELIZONDO T. 948 58 02 83	BIOK BAT TAILERRAK %10 DESKONTUA Baterietan, olio aldaketa eta frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98	
FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitaletan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	Giltxaurdi Udal Kirol Instalazioa %5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01	Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Datuegibela, 10 ELIZONDO T. 948 58 02 25	IPINGI %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Santiago, 130 ELIZONDO T. 948 58 09 39
nafarpres liburuetan %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	POSADA ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	SANSIÑENA CITROËN %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA eskeletan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58	Zentru berria Homeopatia, Kiromasajea, Polaritatea, Dietak ... %10 DESKONTUA kontsulta-terapiari Santiago, 58 ELIZONDO

HERIOTZAK

- **Felipe Arratxea Agirre,**
Iruritakoa, apirilaren 25ean, 84 urte zituela.
- **François Etcheverry,** Sarakoa, apirilaren 19an, 81 urte zituela.
- **Fernando Etxebeeste Beola,**
Berakoa, apirilaren 29an, 76 urte zituela.
- **Jose Javier Bertiz Leziaga,**
Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 1ean, 63 urte zituela.
- **Francisco Javier Zabaleta Zabaleta,**
Leitzakoa, maiatzaren 3an, 58 urte zituela.
- **Juan Altzugarai Altzugarai,**
Berakoa, maiatzaren 7an, 87 urte zituela.
- **Inocencia Zubiri Etxandi,**
Anizkoa, maiatzaren 8an, 96 urte zituela.

**ESKELAK JARTZEKO edo
OROIGARRIAK EGITEKO:**
948 63 54 58 edo **info@ttipi.eus**

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan,
(Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena
Nafarroa garaiko mendialdean

OROIGARRIA

**Javier
MINDEGUIA MUÑOZ**

Donamarin hil zen 2018ko apirilaren 3an
63 urterekin



Udazkeneko hego haizeak ekarri zintuen
eta udaberriko haize epelak eraman zaituen arren,
ez dago haizerik guregandik bananduko zaituenik,
betirako gure bihotzean egonen baitzara.

MAITE ZAITUGU

ZURE FAMILIA

Maldaerreka
IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**

Ehorzketa Zerbitzuak

MALERREKA:
DONEZTEBEN, maiatzak 21etik aitzinera
Aparan industrialdean

BERAn, San Jose Beilatokian
Eta laster, ELIZONDOn

Baita BERTIZARANA | ZUGARRAMURDI | URDAZUBIn ere
ESKUALDEAN ETXEKO ZERBITZUA

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | **info@funerariabaztanbidasoa.com**



Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



'Bizi' duatloian. Nafarroa Oinezen leloarekin bat eginez, Bizi ibili ziren Mikele Etxekolonea zubietarra eta Sarai Maritorea berroetarra apiril hondarrean Altsasun jokatu zen duatloian. 23 kilometro biziketan eta zazpi lasterka egin eta emakumezkoen artean lehendabiziko postua lortzeko 01:46:30 behar izan zituzten. Maiatzaren 26an Iruritan egitekoa duten mendi duatloian ibiliko da bikotea. Segi horrela!

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguztu eta bidalguztu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitez Ttipi-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Nahia Marcel Larzabal**, Sarakoa, apirilaren 12an.
- **Laia Elizalde Garcia**, Sunbillakoa, apirilaren 29an.
- **Nikole Sarasua Cano**, Etxalarkoa, apirilaren 18an.

EZKONTZAK

- **Antonio Javier Casado Fernandez** eta **Maria Angeles Zelaia Errandonea**, Iruñekoa eta Sunbillakoa, maiatzaren 5ean Sunbillan.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

URTEBETETZEAK



Goizuetako **Izaro Saldias Makazagak** 6 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Lorearen partetik!



Iturengo **Narrea Elizalde** maiatzaren 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki zure anaia Oinatzen partetik. 5 muxu potolo!



Jone Orube Uriak 8 urte bete zituen apirilaren 17an. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Maialen eta Irati ahizpen partetik!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internet

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion-agurra. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean baita hurrengo Ttipi-Ttapa aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez Ttipi-Ttaparen

bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa

Argazki soilak: 5 €; bikoitza 10 €; **Ordaintzeko:** (1) Bulegoan, dirutan. (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu. (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia. (4) erran.eus bitartez.

Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

ZUK

ttipi-ttapa

Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkiozu

...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapa Fundazioak?

- TTIPI-TTAPA aldizkaria argitaratu eta zure etxera eraman
- ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez eguneroko informazioa zabaldu
- Euskara eta euskal kultura sustatu

eta guztia. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

LAGUNDU

ZURI

mecna

MECNAK zuri 40€ bueltatuko dizkizu

40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortenean

ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT

Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitortenean lehen 150 €tan. eta %40a kopuru haundiagoetan.


AURREZTU

ttipi-ttapa

Informazioa lortu nahi baduzue deitu. 948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoa



PLAZAN BAZAN

Kaixo Lagunak!
zer moduz zaudete?



SEGUNDOTXO BAT...

Bi sekuentzia hauen artean segundo bakar bat besterik ez da pasa, baina gauza mordo gertatu da. Bilä itzazu bi irudien artean dauden aldeak.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

INTERNETEN ERE BAI ! <http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



PUBLIZITATEA

UDALEKUAK 2018

UDALEKU IREKIAK: 3-6 URTE
SORMEN TAILERRAK: 7-12 URTE

ARANTZA BERA ETXALAR IGANTZI LESAKA



INFORMAZIO GEHIAGO:
www.bortziririak.eus

DATAK ETA ELKARTZEKO TOKIAK

Uztailaren 2tik 27ra Arantzako Herri Eskolan, Berako Ricardo Baroja Ikastetxean, Etxalarko Eskola Titikian, Igantziko Barazarrean
Uztailaren 16tik abuztuaren 10era Lesakako Irain Ikastetxe Publikoan
Astelehenetik ortzirralera, 10:00etatik 13:00etara

PREZIOAK

Aukera dago bi asterako edo laurako izen-emateko.

	4 ASTE	2 ASTE
Ume bat	90€	50€
Bi anai-arreba	150€	80€
Hiru anai-arreba	180€	90€

Behar ekonomikoak dituzten familiek alpatutako tarifen %50a ordainduko dute. Horretarako, izena eman ondotik, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri behar dira (T. 948 635 036)

IZEN-EMATEA


Maiatzaren 21etik ekainaren 1era,
Bortzirietako Euskara Mankomunitatean
www.bortziririak.eus | Tel.: 948 634 125 - 680 650 650

ZAKARRONTZIA

Martintxo zakarrontzira zerbait botatzen ari da. Zer ote da? Marraz ezazu.



KALABAZA FESTA



Aurkitu parerik ez duen kalabaza.

Zkia.:

PUBLIZITATEA

UDAKO JOSTALDIA ESKUARAZ

3-12 URTE

BAZTANEN 2018ko UZTAILEAN ETA ABUZTUAN
ASTELEHENETIK ORTZIRALERA, 10:00ETATIK 13:00ETARA

TXANDAK

1- ERRATZU (Kodea ER): 2- ELIZONDO (Kodea EL):
uztailaren 16tik 27ra uztailaren 30etik abuztuaren 10era
Etxelebert elkartean Baztandarren Biltzarreko egoitzan
(Aste bakarra ere egin daiteke, baina lehentasuna bi aste egiten dutenek eta Baztanen erroldatutakoek izanen dute)

PREZIOA

Baztanen erroldatuak

- 70€ txandako | 35€ aste bakarra.
- 55€ familia ugaria bada edo txandan haurride bat baino gehiago badira 35€ aste bakarra.

Baztanen erroldaturik ez daudenak

- 110€ txandako
- 55€ aste bakarra.

Maiatzaren 28tik ekainaren 1era
619166138 telefono zenbakia deituz.
Epea luzaezina. Plaza mugatuak.

ORDAINKETA

Dirua kontu honetan sartu: ES36 2100 5255 10 2200035704 (La Caixa)

Epea: ekainaren 8a.

Kontzeptuan: hauraren izen-abizenak eta txandaren kodea (ER/EL).
Edozein zalanza izanez gero, hurrengo telefono zenbakira deitu: 619 16 61 38

AURKEZTU BEHARREKOA

Familia ugariaren txartela, behar izanez gero, Baztan Balleko Etxean.

Antolatzailea:

BAZTANGO
euskara
ZERBITZUA

Baztango
Udala

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

709

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera
Idoia Hernandorena Ameztai | LEGASA
Zugarramurdiako lezeak - 2 sarrera
Juliana Mutuberria Indakoetxea | ZUBIETA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Arantxa Zelaia Txokarro | BERROETA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Bernar Errandonea Baztarrika | BERA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Begoña Etxalar Etxaide | ALMANDOZ
La Rhune - 2 sarrera
Gurutze Pikabea Iribarren | ARANTZA
Ibaizabal - Liburu bat
Oskar Astibia Baleztena | LEITZA
Ibaizabal - Liburu bat
Santiago Alzueta Etxeberria | URDAZUBI

2 tiket

BAZTAN AVENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZORDONAKUTZ!

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera

AQUARIUM EUSKADI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

EUREKA! Museo+Planetario

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

LIBURUAK



Hogeita sei urte geroago
Urrezko ibaiaren erregea

erein
ARITATASUNA
www.erein.eus

LA GUNTZAI LEAK

